

A L E B E R E Z I A

# Berrigara

**PAZKUAK**



**Teknologia eskubide bat da,  
ez da pribilegioa.**



Uste dugu ez duela zentzurik auto bat diseinatzeak, gutxi batzuen eskura egon behar bada. Horregatik geure erronka izan da teknologia, segurtasun eta erosotasun gorena duen autoa sortzea, baina mundu guztiaren eskura. Opel Astra berria. Teknologia eskubide bat delako, ez pribilegioa.

**Serieko ekipamendua:** ABS elektronikoa lau gurpiletara, lagunduriko direkzio elektrohidraulikoa, korrosioaren kontra 12 urteko bermea duen karrozeria galbanizatua, atzealdeko ardatza efektu direkzionalarekin, garaieran eta sakontasunean egoki daitekeen bolantea, gidatzailearen jarlekua garaieran egoki daitekeena, leihoak igotzeko sistema elektrikoa, itxigailu zentralizatua urrutiko agintearekin, tamaina handiko air bag-a gidatzailearentzat, lapurretaren kontrako geldiarazle elektrikoa, funtzio askotarako pantaila:



Motor hauek daude eskuragarri: 1.6tik 2.0 16v.-ra; turbodieselelan 1.7 eta 2.0 DI 16v. Karrozeriak 3,5 atetan eta Caravan. Bukaera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

**TALLERES OLA**


Olabarrena auzoa z/g. Tf. 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA  
Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia). Tf. 943 79 05 86

**OPEL**  
INGENIARITZA ALEMANA ZURE


# Orriak PASA AHALA...



# 11.

## TITANIC: HONDORATZE MUSIKALA

Eguakitzean, hilak 21, frontoian eskainiko den ikuskizunari buruzko xehetasunak.



# 19.

## BIDEBE-ROCK

Lau egunetan zehar herriko eta kanpoko zortzina talde izango dira azken urteotan rockaren bilgune bihurtu den txokoan.

## 4. Agenda eta zerbitzuak

Jai sasoiaren irekita izango diren far-maziak, okindegiak, izango dugun eguraldia, intereseko telefonoak...

## 6. Jai egitaraua

Jaietako egitarau osoa.

## 15. Orfeoia 75 urte

Urteurrena dela eta, Udaletxean ikusgai den erakusketaren berri.

## 33. Kale antzerkia

Trapu Zaharra antzerki taldeak Manteca senar-emazteen gora-beherak dakarzkigute domekan.

## 34. Dantzaldiak alaitzen

Lisker taldea ez da ahuntzaren gauerdiko estula. Berbena-talde gutxi hain kalitatezko.

## 41. Hirugarren mailara!

Zapatuan Bergara futbol taldeak Oñatin garaipena lortuko balu, mahoneroak hirugarren mailan izango lirateke.

## 43. Nekaezinak

Txomin Castro Incansables txarangako tronpetajole ohiak omenaldia jasoko du astelehenean.

## 45. Atrebentzia ezpada

Zer ekarriko zenuke jaietara?

## 46. Erretratu zaharra



## GARAI BATEKO IRUDIAK

60 eta 70eko hamarkadetan estanpak ziren gizartearen ispilu eta jaietako saltsa nagusia...



# 37.




## JAIETAKO OROITZAPENAK

Nork ez ditu gogoan jaietako errekerueroak? Hainbat bergararrenak jaso ditugu.

## J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

- Odontologia orokorra
- Implanteak
- Ahoko zirugia

Ortodontzia



Tf. 943 76 56 88

Fraiskozuri 5A, I-D



## Berrigara

368 zenbakia. Ale berezia  
1999ko maiatzaren 21a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefona:** 943 76 03 97.  
**Faxa:** 943 76 29 77  
**Argitaratzailea:** JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.

**Erredakzioa:** Eneko Azkarate,  
Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.

**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.

**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.

**Harpideta:** Itziar Kortabarria.

**Testuen zuzenketa:** Estepan Plazaola,  
Alex Labaien, Mirari Alberdi, Maripi  
Laskurain.

**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel  
Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka  
Elortza.

**Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka  
Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai  
Azkarate.

**Kolaboratzaileak:** Juan Martin  
Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre,  
Imanol Sorondo.

**Banaketa:** Txantxangorri taldea.

**Inprimategia:** Gertu Koop.  
Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Amaia Labaien.  
Modeloak: Leire Bolaños eta  
Iñaki Alonso.

Tirada: 5.200 ale.

Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Berrigarako  
Udala




Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## Eguraldia Igeldoko metereologi behatokia



Azken egunotako euri zaparraden ondoren, eguraldiak hobera egingo du eta jaietarako atsegina goa iragarri dute. Hodeiak agertuko zaizkigu, baina ostarte zabalak irekiko dira. Haizeak iparmende baldetik joko du; temperaturak gora egingo du.

## Ilargiaren aldiak



Ilberri: maiatzak 15



Ilgora: maiatzak 22




Ilbete: maiatzak 30



Ilbehera: ekainak 7

## Eguzkia

Domeka, maiatzak 23



Sortu: 06:54



Gorde: 21:34

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 13</b>	29	9	3,2
<b>Eguakitza 14</b>	16	13	16,5
<b>Zapatua 15</b>	16	11	1,4
<b>Domeka 16</b>	15	8	13,4
<b>Astelehena 17</b>	21	10	10,9
<b>Martitzena 18</b>	18	10	13,2

## Alkatearen agurra

**D**enok egoten gara ilusioz bete-ta egun hauek iristeko, gazteak, gozatzeko plan ugari eginak dituztelako eta gainerakoek, berri, Festan partaide izango garelako. Beste behin ere, gure usuarioak betetzeko aukera izango dugu eta eguneroko ohikotasunaren bidean etenaldi bat egingo dugu.

Guztioi lagun diezagutela jai hauek adiskidetasunezko harreman berri eta aberatsak sortzeko. Egun horietan bizi izaten den bat-batekotasun horrek lagun diezagula gure betiko diferentziak alboratzen eta hainbeste desiratzen dugun bake horretarantz joaten.

Nire esker ona azaldu nahi diet egitarau hau prestatzen esku hartu duten guztiei eta itxaropena dut denon gustukoa izango dela. Aldi berean, nire

oroitzapena arrazoi bategatik edo bestearengatik gure artean izango ez diren bergarar guztientzat.

Aurten, gainera, zorionak ematearekin batera, Alkate gisa agur esaten dizuet; 4 urteren buruan egindako lana ilusioz bete izan da, gure Bergarako herri hau modernoago, zerbitzu gehiagodun eta bizi-kalitate hobekoa izan dadin lortzen ahalegintzeko.

Nire eskerra, halaber, zinegotzi guztiei eskainitako laguntzarengatik, eta baita Udalaren kudeaketan esku hartu duten herritarrei nahiz Udaleko langileei ere beren ardurarengatik.

Eskerrik asko guztiei, eta jai zoriontsuak izan ditzazuela denok.

Zuen Alkatea,  
Victoriano Gallastegi



Iturkintza • Berogintza • Bainuak

# Laskurain

Barrenkalea 35

ONDO PASAU JAIXAK!!

☎ 943 76 24 89

## MUSIKA

► **Jam. Toni Verdi eta Francesco Farfa** DJ-ak eguakitzean, 00:00etan. Zapatuan, 22:00etan, **Luther eta Whitesnake** taldeak eta ondoren techno-house jaialdia.

## IKASTAROAK

► **Islada** bideo tailerraren **bideo sarrera** ikastaroa maiatzaren 31tik uztailaren 1era. 943 77 91 58.

## DEIAK

► **Jaietan aparkalekuak egokituko** dira hainbat puntutan: San Martin Agirre, Ipintza, Miguel Altuna eta Martinez Iralaz ikastetxeetako patioetan; Eusko, Royde eta Mayc lantegietan, eta Seminarioko patioan (astelehenean izan ezik).

► Udalak jakinarazi du **aurten barraketan buelta bat ematea** 175-200 pezeta kostako dela; astelehen goizean eta eguaztenean, berriz, 100 pezeta.

► **Manifestazioa:** 35 orduko lan astearen aldeko greba dela eta, manifestazioa eguakitzean 12:00etan Plazan.

► **Udal igerilekuak** itxita egongo dira Pazkuetan.

► **Ipintza Institutua.** Batxilergoari buruzko bilera informatiboa eguenean, maiatzak 27,



Martitzenean, herri bazkaria.

18:30etan ikastetxeko areto nagusian.

► **Euskal presoak Euskal Herrira** taldeak euskal produktuz osatutako saskia zozketatuko du zapatuan, 21:00etan Plazan. Bestalde, presoek hutsunea adierazten duten **kartelak balkoietan jartze-ko** eskatzen da.

► **Euskal Mendizale Federakundearen 75. urteurrena.** Domekan, 11:30etan, meza eta mendizaleak elkartzea Asentzion, Elgetan. Ordubatean ekitaldi ofiziala Mendizaleen plazan: plaka oroigarriaren inaugurazioa dantzari, bertsolari, trikitilari eta abarrekin eta 14:30etan herri bazkaria Udal Pilotalekuan.

► **Herri bazkaria** martitzenean Plazan. Aurretik, 13:00etan, poteoa, Pol-Polen hasita. Txartelak (1.300 pezeta) Ariznoa, Kortazar, Arrano edo Jardunen.

► **Gestorak eta Senideak.** Gaur eguakitze euskal presoek

aldeko **enkartelada** 19:30etan Plazan eta 20:00etan **Gestoretako tabernaren irekiera** Irala kalean. Bihar, zapatua, **"Amnistia" lemapean manifestazioa**, 20:00etan. Domekan, 22:00etan, **Lorelei taldea** Gestoren eta Senideak-en tabernan eta astelehenean, 20:00etan, **presoei omenaldia** Plazan.

## JAIAK

► **San Esteban Elkoartiko jaia** domekan. Eguerdiko 12etan auzo meza eta jarraian salda eta pintxoak bildutakoentzat. Ondoren erromeria eta haurrentzako jokoak.

## ZINEA

► **¿Conoces a Joe Black?** Novedadesen. Eguakitzean eta zapatuan 22:30etan, domekan eta astelehenean 19:00etan eta 22:30etan eta eguaztenean (ikuslearen eguna), 19:30etan. Eguenean, 20:00etan, **Camino al cielo** (zine-kluba).

## Farmaziak

**Eguakitzea 21:**

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

**Zapatua 22:**

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

**Domeka 23:**

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

**Astelehena 24:**

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

**Martitzena 25:**

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

**Eguaztena 26:**

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

**Eguena 27:**

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

## Ogia

**Domeka 23:** Konde.

**Martitzena 25:** Mizpildi.

## Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udalzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Jardun	943 76 36 61
Postetxea	943 76 26 85

# Nerea

Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak

Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52

## Ondo pasau jaixak!

UDAN, zapatu arratsaldeetan itxita eta astelehen goizetan zabalik.

# Jai EGITARRAUA

## Eguakitza 21

Bitorianatxo prest jaiei  
hasiera emateko.



▶ **20:00** Etxafleru jaurtiketa, ikurriña altxatzea eta Bitorianatxoren jaitsiera jaiei hasiera emateko.

▶ **20:15** Udal Musika Bandaren kalejira.

▶ **20:30** Eskola kiroleko sari banaketa San Martin plazan. Aurretik, arratsalde partean, **eskubaloiko, saskibaloiko eta futboleko finalak** jokatu dira, San Martin ikastetxean eta Ipintza futbol zelaietan.



Eguakitzera barrakak martxan.

▶ **20:30** Barrakak irekitzea Matxiategin.

▶ **20:30** Txoznak irekitzea Bideberrin. Aurten bost txozna jarriko dituzte. Honako talde hauenak: Jarrai, Ipintza institutuko ikasleak, Gazte lokalaren aldeko plataforma, AEK eta Euskal Herrian Euskaraz.

▶ **0:30** Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

▶ **22:00** Rock kontzertua Bideberrin. Taldeak: Dr. Explosion, Aerobitch, Ill eta Factoria 77.



Aurten bost txoznak eguakitz arratsaldean zabalduko dira.

▶ **23:00** Bergarako Orkestra Sinfonikoa, Aritzeta abesbatza, Xamatx dantza taldea eta Billabonako Eresargi txiki, tipleen abesbatzaren kontzertua, Udal Pilotalekuan.

EGITARRAUA:

• **1. zatia**

"Egmont". Obertura.

Ludwig Van Beethoven

"Erdialdeko Asiako Estepatan".

Bozeto sinfonikoa. A. Borodin

"Candide". Operaren suitea.

L. Bernstein

- The best of all possible worlds
- Westphalia chorale and battle scene
- Auto-da-fe (What a day)
- Glitter and be gay

• **2. zatia**

"Titanic". Soinu-banda. J. Horner

- Never an absolution
- Distant memories
- Southampton
- Take her to sea, Mr. Murdoch
- An irish party in third class
- Hard to starboard
- The sinking
- A promise kept
- An ocean of memories
- My heart will go on

Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque

Bakarlaria: Izaskun Gomez

Aritzeta abesbatzaren zuzendaria:

Imanol Urzelai

Eresargi txiki abesbatzaren

zuzendaria: Asier Vitoria

Xamatx taldearen zuzendaria:

Jabier Mendizabal

Aurkezpeneko testua: Manu Diaz

Aurkezlea: Alberto Gorritiberea

▶ **23:00** Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

## Zapatua 22

▶ **09:00** Hama-bost urtez azpi-koentzat XIX. Haur eta gazteen plastika sariketa librea. Izen ematea Kultur Etxean. Sari banaketa egerdi aldera.



Zapatu goizean marrazteko aukera.

▶ **10:00** Diana, auzoak esnatu ondoren San Martin plazaruntz. Bolu auzotik, Udal Txistulari Banda; Oxirondotik, Kobok dultzaineroak; Labegaraietatik, losu eta lokin soinu-joleak. Ondoren, **Mizpirualdera bisita** egingo dute dultzainero eta txistulariek.

▶ **11:30** Elkartearen arteko sukaldaritzaren lehiaketa San Martin plazan. Bakailaoa pil-pilean prestatuko dute.

Sukaldaritzaren lehiaketa zapatu goizean.



▶ **18:00** Azkona taldearen kale animazioa San Martin plazan.

▶ **19:00** Zezenak kaxoitik ateratzea, zezen plazan, eta ondoren zezen ikuskizuna.

▶ **19:30** Bonba japoniarrak haurrentzat San Martin plazan.

▶ **20:00** Erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira Udal Txistulari Bandak, Kobok Bergarako dultzainero taldeak eta Kukumako hankaluzeez lagunduta.

▶ **20:30** Basakabi taldearekin dantzaldia San Martin plazan.



# ARATZ

## ALBAITARI KLINIKA

Jai zoriontsuak opa dizkiegu  
gure bezero guztiei!

Zurradero 6, behea

Telefona: 943 76 70 67 Mobila: 607 48 71 19

► **22:00 Rock kontzertua Bideberrin.**

Taldeak: Tav Falco & The Panther Burns, Meows, Red Shift eta Frenopatics.

► **22:45 Pilota partiduak** Pilotalekuan.

- Armendariz-Nagore.
- Alustiza eta Zearra-Tirapu eta Errasti.

► **23:30 Basakabi taldearekin dantzaldia** San Martin plazan.

## Domeka 23

► **07:45 Alborada** Udal Txistulari Bandarekin.

► **08:00 Elgoibarko dultzainero eta Azpeitiko Udal Musika Bandaren kalejira.**

► **09:00 Lehen Entzierroa**, Marques de Sakaren ganaduekin.

**IBILBIDEA:**

Zezen plaza, Ramon Maria Lili, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Barrenkalea, Irizar pasealekua eta Gaspar jatetxeko garajea. Jarraian, alderantzizko bidea egingo du entzierroak, Gaspar jatetxeko garajetik irten eta zezen plazaraino.

**Ondoren, enbolatuak Azpeitiko Udal Musika Bandak eta Elgoibarko dultzaineroek girotuta.**

► **09:00 Txirrindulari lasterketa.** LXIV. Pentekoste Saria" 23 urtez azpikoentzat.

► **10:00 Ollagorra elkarteak antolatutako plater tiraketa** San Juan auzoan.

► **10:30 Udaberriko karate txapelketa.** Bergarako Shotokan Karate Elkarteak antolatuta Gipuzkoako Federazioarekin batera, Labegaraieta kiroldegian. Karate erakustaldia ere eskainiko dute 8 karate maisuk.

► **11:00 Meza nagusia San Pedron,** Udalbatza partaide dela, Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak lagunduta.



Buruhandiak zapatu arratsaldean.

► **12:00 Hamabost urtez azpikoentzako XXII. Euskadiko dantza suelto txapelketaren kanporaketak** San Martin plazan. Lehenengo 15 bikoteak sailkatuko dira.

► **12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua** Espoioan.

**EGITARAUA:**

"Tannhäuser".

Operaren martxa handia. R. Wagner "La Cénéréntola". Obertura. G. Rossini.

"Dynamica". J. V. der Roost

"Mendi-Mendian". Operaren fantasia.

J. M. Usandizaga

"A tribute to the count bassie

orchestra". T. Mushima

Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque.

► **13:30 Udal Musika Bandaren kalejira.**

► **16:30 Pilota partidu interesgarriak** Udal Pilotalekuan.

- Agirre-Rai.
- Unanue eta Taberna-Barberito VI.a eta Errandonea.
- Ariznabarreta-Koka.

► **17:15 San Martin plazatik zezen plazaraino kalejira Azpeitiko Udal Musika Bandak eta Elgoibarko dultzaineroek lagunduta.** Mandoek, agoaziltxoek, agintariek eta herriko zaletuen koadrilek parte hartuko dute. Geldialdia Alzelaianean.

Dantza txapelketa domeka eguerdian.



► **17:30 Bikote gazteendako XXII. Euskadiko dantza suelto txapelketa** San Martin plazan Udal Txistulari Bandak lagunduta.

► **18:00 Zezen festa,** Salamancako Jose Luis Rodriguez Lopez "Valrubio" ganaduzalearekin antolatuta, Zezen Zaleak taldearen laguntzaz. Txuliatzaileak: Javier Sanchez "Valverde" salamancarra eta Omar Guerra jaendarra. Sobresalientea: Fernando Oses.

► **19:30 Trapu Zaharra antzerki taldeak egindako "Aberia" kale antzerkia.**

► **20:00 Elgoibarko dultzaineroen kalejira.**

► **22:00 Rock kontzertua Bideberrin.** Bergarako taldeak: Elevators, Requiem, X-at eta Nightrains.

**23:30 Tarantella Orkestrarekin Camp dantzaldia** San Martin plazan.

## Astelehena 24

**08:00 Kalejira Los Incansablesekin,** entzierroaren ibilbidetik, zezen plazaraino.

**09:00 Bigarren entzierroa,** Mutrikuko Gorixoren ganaduekin.

**IBILBIDEA:**

Zezen plaza, Ramon Maria Lili, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Barrenkalea, Irizar pasealekua eta Gaspar jatetxeko garajea. Jarraian, alderantzizko bidea egingo du entzierroak, Gaspar jatetxeko garajetik irten eta zezen plazaraino.

**Segidan enbolatuak, Los Incansables txarangak alaituta.**



# COMERCIAL BRUNET

Ozaeta, 11-13 behea - **BERGARA** (Gipuzkoa)  
Tfnoa. 943 76 31 52 - Tfnoa./Faxa 943 76 70 12 - Mugikorra : 608-775501



► **11:30 Haurrentzako jolas parkea**  
Seminarioan: karrak, gaztelu puzgarriak, e.a. 13:00ak arte.

► **11:30 Barraketan haurrentzat prezio bereziak**, 14:00ak arte.

► **11:30 Udal Musika Bandaren kalejira.**

► **12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua Espoioan.**

EGITARAUA:

"El carloteño". Pasodoblea.

Miguel Gonzalez Bastida

"Ross Roy". Obertura. J. de Haan

"La passarella di addio". Soinu-banda.

N. Rota

"Luisa Fernanda".

Zarzuclako hautaketa. M. Torroba

"Sophisticated ladies". D. Ellington

(Jaiotzeneko mendeurrena)

Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque.

*Haurrentzako jolas parkea  
astelehen goizean eta arratsaldean.*



► **16:00 Haurrentzako jolas parkea**  
Seminarioan: karrak, gaztelu puzgarriak, e.a. 20:00ak arte.

► **16:30 Pilota partiduak Udal Pilotalekuan.**

- Urionaguena eta Nalda III.a-Errendo-nea II.a eta Barriola.
- Nagore eta Patxi Ruiz-Salaberria eta Armendariz.

► **18:00 Zezen ikuskizuna**, gazteentzat, Mutrikuko Gorixoren ganaduekin, Los

Incansables txarangak animatuta, zezen plazan.

► **19:00 Amaia eta Kristina trikiti taldea** San Martin plazan.

► **20:00 Los Incansables txarangarekin kalejira.**

► **22:00 Rock kontzertua Bideberriin.**  
Zombi Zú, Lif, Fly Shit eta Zartateko.

► **23:00 Nueva Alaska taldearekin Camp dantzaldia Espoioan.**

► **22:30 Amaia eta Kristina trikiti taldearekin dantzaldia** San Martin plazan.

## Martitzena 25

► **08:00 Kalejira, Los Incansables txarangak alaituta**, entzierroaren ibilbidetik zezen plazaraino.

► **09:00 Hirugarren entzierroa**, Orozkoko Benigno Manzarbeitiaren ganaduekin. **IBILBIDEA:**

Zezen plaza, Ramon Maria Lili, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Barrenkalea, Irizar pasealekua eta Gaspar jatetxeko garajea. Jarraian alderantzizko bidea egingo du entzierroak, Gaspar jatetxeko garajetik irten eta zezen plazaraino.

**Segidan enbolatuak, Los Incansables txarangak alaituta.**

► **11:30 Herri trenaren bira**, Fraiskozuri plazatik irtenda. 13:00ak arte.



► **12:00 Aranzadi Ikastolako dantza taldearen erakustaldia** San Martin plazan.

► **13:00 Jardunek antolatutako Herri poteoa** Xafre eta Zaharra eta losu eta lokin trikitalariekin.

► **14:30 Jardunek antolatutako Herri bazkaria**, Xafre eta Zaharra eta losu eta lokin trikitalariekin, San Martin plazan. **Bazkal ostean, Txan Haundiaren Majia saioa.**

► **16:30 Pilota partiduak Udal Pilotalekuan.**

Banakako eta binakako Pentekostes txapelketako finalak.


► **17:00 Herri trenaren bira Fraiskozuri plazatik irtenda.** 21:00ak arte.

► **18:00 Enbolatuak**, herriko koadrilentzat zezen plazan, Orozkoko Benigno Manzarbeitiaren ganaduekin, Los Incansables txarangak alaituta.

► **20:00 Los Incansables txarangarekin kalejira.**

► **20:00 Dantzaldia Lisker taldearekin** San Martin plazan. Gaueko 11etatik aurrera, berriz ere dantzaldia Liskerrekin.

► **24:00 San Martin plazan elkartzea eta Bitorianatxoren igoera.**



## Manufacturas LARRAÑAGA

Lan-babeserako artikuluak, lan-prebentzio eta seinaleztapena, lanerako jantzigintza

Leizeaga 1. Tf. eta faxa 943 76 59 53.  
Posta kutxa 140. 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

**Zorionak eta ondo pasau!**





LAKET · LAKET · LAKET · LAKET



LAKET Txiki eta LAKET Emakumezkoak  
Irala 5. Tf. 943 76 37 41




LAKET  
Barrenkalea 35. Tf. 943 76 03 98

Emakumezkoendako, gizonezkoendako eta ume eta gazteendako  
imajina dezakezun erropa dena zeure eskura.  
Eta marka onenak!

# VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai 4 Tf. 943 76 12 21 Bergara  
Iturrioz 24 Tf. 943 79 78 10 Arrasate  
Toribio Etxeberria 22 Tf. 943 12 08 12 Eibar  
Errioxa 17 Tf. 945 25 88 92 Gasteiz

*Zure ongizatea  
babesteko gande*



902 202 502



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**

**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**

**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**

**EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.**

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**

**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.**



# MATXIATEGI

## ELEKTRAGINTZA



⚡ Era guztieteko instalakuntza elektrikoak

⚡ Aurrekontua eta aholkularitza, konpromezu barik

⚡ Lanpara erakusketa

⚡ Elektrizitate materialen salmenta

**A. Fleming 5. 943 76 19 94**

# BERGARA *Kafea-Pentsioa*

EGUNERO

goizeko 7etatik zabalik.

**Gosariak, pintxoak, bokatak eta meriendak.**

**Logelak.**



Logelak



Kafetegia

*Ondo pasau jaixetan!*

Bidekurutzeta 34. Tf. 943 76 47 23



**Frontoian.**  
Eguakitzean  
23:00etan.



# Titanic musikak berpiztuko du

## 200 partehartzaile eguakitz gauean frontoiko ikuskizunean

**Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Aritzeta abesbatzak, Xamatx dantza taldeak eta Billabonako Eresargi ahots zurien abesbatzak, bat egin dute aurten, James Horner Titanic obraren egilearen moldaketa bergararrei gerturatu nahian. Ikuskizuna Bergarako Udalaren babesean antolatu da.**


**B**ergarako Orkestrak, superproduzio handien soinubanda gertutik entzutera ohitu gaitu dagoeneko. Nork ez ditu "La Mision", "El rey Leon" eta "Evita" emanaldiak gogorutzen? Oraingoan, Argentinako lurraldea utzi, Ingalaterrako Southampton porturaino abiatu, Titanic-era igo eta Ameriketako bidea hartzera gonbidatu gaitu. Beethoven, Borodin eta Bernstein-en obrek emango diote ikus-

kizunari hasiera orkestraren eskutik. Ordu erdi beranduago, munduko itsasuntzi erraldoiaren hondoratzearen nondik norakoak ezagutuko ditugu Aritzeta, Eresargi eta orkestrak lagunduta.


Hamar zatitan banatutako soinu bandari, "Never an Absolution" piezak emango dio hasiera. Fantasia eta imajinario apur batekin, Titanic-era igo gaitetzeke, denboran 1912. urteko apirilera

arte atzera eginez. Sarrera bera, garaiko badaiariek Titanic-en huntziratzeko erosi behar izan zutenaren kopia da. Ikus-entzuleak istorioaren mamia eta bitxikeria ugari azaltzen dituen eskuliburua jasoko du, guztia, ikuslea moldaketan murgildu arazteko helburuarekin. Alberto Gorritiberea kazetariak, hala ere, aurkezle lanak egingo ditu eta ikuslearen gidari bihurtuko da obra osoan zehar.

Argitapen honen edizioko laguntzaile:

 **kutxa**

*gizarte-ekintza  
obra social*



**MUSIKAREN BIDEZ BIDAIATU**

James Cameron filmearen zuzendariak, eta James Horner soinu-bandaren egileak, Titanic, historiako filmerik arrakastatsuen izatea lortu zuten. Mundu zabaleko ikuslearengan sortu zuen zirrara eta soinu bandak dituen ezau-garriak orkestrara egokituta egoteak eragina izan zuten obraren aukeraketan. Alfredo Gonzalez Chirlaque orkestrako zuzendariak azaldu digunez, "soinu banda behin eta berriz entzun dugu partitura eta ahotsak lortzeko. Aurreko asteburuan, bestalde, Espejora joan ginen guztia ondo lotu nahian. Musika hain da deskribatzailea, ikusleak istorioaren une bakoitza berehala antzemango duela. Bidaiarien untziratzea, aristokrazia eta herri xumearen aldea, iceberga ikusten duten uena, horrek sortarazten duen zoramena, ikara eta laztura...".



musika klasikoa, beltz espiritualak, afrikar erritmodun abestiak, Europa ekialdeko musika garaikidea e.a".

Eresargi abesbatzak dagoeneko bost urte bete ditu. Gipuzkoako Eguberri lehiaketan, birritan, eta Euskal Herriko Antiguako abesbatz lehiaketan irabazle izan dira.

**IZASKUN GOMEZ BAKARLARIA**

Ekitaldiko azken txanpa, "My heart will go on" abestiarekin iritsiko da. Izaskun

Gomez Oraa, Alaitz abesbatzeko gasteizarrak, Celine Dioneek eza-gutzera man zuen abestia eskainiko du. "Inoiz ez dut horrelako ikuskizun batean parte hartu.

Izugarria iruditzen zait.

Orkestraren lana zoragarria iruditu zait. Bakarlari lana egiteko deitu zidatenean harritu egin nintzen. Erantzukizun handia da, kantu ezaguna eta jende asko izango baita bertan, baina obra honek merezi du". Izaskunek 21 urte ditu eta dagoeneko 10 urte bete ditu abesten.

Titanic-en itsasuntziratzeko atek gaueko 22:15etan zabalduko dira. Lehiatilako sarrerak 1.300 pezetan ipiniko dira salgai, 21:00etatik aurrera. Aldez aurretik erosiz gero, 1.000 pezeta izango dira. Emanaldiaren hasiera 23:00etarako iragarri da. **B**

**IRLANDAR DOINU ETA DANTZAK**

Doinu irlandarretan oinarrituriko partitura sinfonikoa entzungo dugu. Horner berak garrantzi handia eman zion irlandar kutsuari 1997an soinu banda lantzeko garaian eta, horretarako, irlandar instrumentuak ere erabiliko dituzte orkestrakoek. Itsasontziaren beheko solairura jaitsi eta irlandar herri xumearen festa giroa Xamatzen eskutik iritsiko zaigu Polka, Blarney eta Pilgrim dantzak eskainiz bat.



Goian, Xamatz taldekoak irlandar dantzak entsaiatzen.


**BILLABONAKO ERESARGI ABESBATZA**

Aurten, abesbatz gaztetxoenen artean pisu handia duen Eresargi abesbatzako ordezkariak izango ditugu. 50 gazte hauek, Asier Vitoriaren zuzendaritzapean arituko dira. Berak adierazi digunez, "haur abesbatz batek landu ditzakeen musika estilo guztiak jorratzen ditugu. Euskal konposizio kontenporaneok,



Lerro hauen gainean, Izaskun Gomez Oraa bakarlarria.

Ezkerrean, obra osoan zehar, elkarrekin abestuko duten Aritzeta eta Billabonako Eresargi tipleen abesbatza.



*Lurrindegia  
Edertze aretoa*

**alga**

Ibargarai 10 Tf. 943 76 00 85

**CLINIQUE**

---

PARFUMS


---

GIVENCHY

---

**ROCHAS**

PARIS



**BOUCHERON**

PARFUMS  
PARIS

---

**PAYOT**

PARIS

---

**GUCCI**

# ERNE GAZTE, HEZIBIDEREN

## ALDEKO APOSTUA

## ERRENTA SEGURUA



**HEZIBIDE**  
Hezkuntza Taldea

### ALMEN ESKUALDEKO IKASTOLA ETA

#### ARRASATEKO IKASTOLA

SAN FRANTZIZKO XABIER - SAN VIATOR

bi aukera anitz bezain osagarri  
honako ikasketak egiteko

### 1 BATXILERGO AUKERA GUZTIAK

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
  - GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
  - TEKNOLOGIKOA, ESKOLA POLITEKNIKOAK
- ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa. Lanbide Heziketako tailerreko praktikak injinerutzarako konbalidatuta.

### 2 UNIBERTSITATE IKASKETAK

UNIBERTSITATEKO IKASKETA  
GUZTIETARAKO, EGUN DAUDEN  
UNIBERTSITATE GUZTIETAN, ETA GOI  
MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO  
SARBIDEA.

AURREMATRIKULAZIOA: EKAINAREN 1 ETIK 9 RA

MATRIKULAZIOA: UZTAILAREN 1 ETIK 9 RA

### 3 ETA LANBIDE HEZIKETA

- GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK (ALMEN ikastola)
- IRUDI PERTSONALAREN AHOALKULARITZA (ALMEN ikastola)
- ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA (ALMEN ikastola)
- INGURUGIRO KIMIKA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- INGURUGIRO OSASUNA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIOA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ERIZAINZAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ILEAPAINKETA (ARRASATEko ikastola -San Viator)

Kontakturako  
pertsonak



ALMEN  
IKASTOLA

Josebe  
Murumendiaraz 943 71 49 07

ARRASATEKO  
IKASTOLA

San F. Xabier Margari  
Gorrotxategi 943 79 64 79

San Viator Idoia Urrutia 943 71 24 90





**Saunier Duval**



**DICOMAN S.L.**

San Lorentzo, 21  
20.570 Bergara  
Laguntza teknikorako zerbitzu  
ofizial baimendua  
**Tf. 943 76 06 61**

**BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA**

**UGARTE**

**AROSZTEGIA**

**ALTZARIAK  
DEKORAZIOA**

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



**Ondo pasatu jaiak!**

San Juan, 1 (Barruti) BERGARA.  
Telefonoa eta faxa: 76 54 91



San Pedroko eliz kontzertuek ospe handia eman zioten Orfeoiari.

# Orfeoiaren albuma

## 75. urteurreneko erakusketa Udaletxean

•••••  
**Udaletxeko Pleno aretoan.**  
 Maiatzaren 30era arte.

**Bergarako Orfeoiaren 75. urteurreneko erakusketa zabaldu zen asteazkenean Udaletxeko Pleno aretoan. Bertan Orfeoiak izandako ibilbide kronologikoa jasotzen da eta, era berean, herriko hainbat margolarik musikaren inguruan egindako lanak izango dira ikusgai datorren maiatzaren 30era arte.**

Orfeoiaren sorrera data zehatza finkaturik ez dagoen arren, 1923ko irailaren 9an Santandereen saritu zutenekoa hartu da taldearen abiapuntutzat. Garai hartan gizonez bakarrik osatuta zegoen abesbatzak bere maila erakutsi zuen Don Roman Oiarzabalen zuzendaritzapean. Ordukoak dira Coral Vergaresa edo Orfeon Vergares-i buruz prentsan azaldutako

lehen aipamenak. Ordutik hamaika kontzertu ditu Orfeoiak, han eta hemen Bergararen izena ezagutzera eman ez.

Udaletxeko Pleno aretoan zabaldu-tako erakusketan, ibilbide luze horren testigantza jaso nahi izan da. Besteak beste, Orfeoiarekin lotutako argazkiak, kontzertuen esku programak, prentsan azaldutako artikuluak, partiturak, bide-

oak edo, manikien bidez, Orfeoiakideen jantzien eboluzioa erakutsiko da. Taldearen inguruko materiala bildu eta ordenatu, eta "album" hori jendeari erakustea izan da helburua. Material gehiena Orfeoiakide izandakoen eta beraien familiarren eskutik jaso dute. Urtebete inguru eman dute antolatzaileek lan horretan eta jasotako material guztia 24 bitrinetan erakutsiko da.

# ETXE BERRIA

## ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK

Bidekurutzeta 16 BERGARA ☎ 943 76 23 94 - 12 65

**ONDO PASATU  
BERGARAKO JAIETAN!**

**ARITZ-MAITEA  
ORFEOIAREN AITZINDARI**

1897. urterako Aritz-Maitea izeneko Orfeoiaren berri dugu Bergaran. Don Pedro Retana apaizak 80 bat gizonen osatutako abesbatza sortu zuen eta hain zuzen ere talde hau gaurko Orfeoiaren aitzindarizat hartu daiteke. Sevillara joandako Don Pedro Retanak lagatako lekua Don Roman Oiartzabal medikuak bete zuen. Bokazioz musikaria zen eta bere Orfeoiaren benetako arima izan zen Don Roman. Erakusketan berari eskainitako bitrina bat jarri da. Bere familiak material dezente utzi du erakusketa egin ahal izateko. Orfeoikide guztiek Don Romanen figuraren garrantzia aipatu izan dute beti. 1929an Bergarako seme kutuna izendatu zuten eta, beste sari batzuren artean, Alfonso X.aren Domina eta Cisneros Kardinalaren Ordena jaso zuen Don Romanek. Berarekin batera bost izan dira taldeak izan dituen zuzendariak: Miguel Gonzalez Bastida (1970-87), Jesus Berroya (87-90), Kristina Larrañaga (91-93) eta David Azurza. 1990. urtean Orfeoiaren ibilbidea eten egin zen, urte hartan ez baitzuen emanaldirik eskaini. Zorionez, krisia gainditu eta kantari belau-



Madrilera egindako bidaia batean Barajasera hegazkinak ikustera hurbildu ziren Orfeoikideak. Behean, ezkerrean, erakusketan ikusgai izango den partitura liburuetako bat.

naldi berriak erakartzea lortu zen eta Orfeoiak indarra berreskuratu zuen piskanaka-piskanaka eta gorakada nabaria ezagutu du azken urteotan.

**ELIZ KONTZERTUAK**

Orfeoiaren historia ezagutzen dutenak bat datoz 1952. urtean San Pedron egiten hasi ziren eliz kontzertuen garrantzia goraipatzeko orduan. Jesus Aranbarriren batutapean Bilboko Orkestrarekin batera emandako kontzertu hauek Orfeoiaren izena ezagutzera eman zuten. Aranbarri Orfeoiarengan erakutsitako konfiantza klabea izan zen. 1960tik aurrera Frübeck de Burgos-ek zuzendu zituen San Pedroko kontzertuak eta honen ondoren Vicente Spiteri eta Odon Alonso zuzendariak etorri ziren. Erakusketan jasotako prentsa artikuluetan, agertzen diren musiko kritikoen titularrak esanguratsuak dira kasu askotan ("La pequeña Salzburgo" esaterako).

**BIDEOAK ETA MARGOLANAK**

Bestalde erakusketan hiru kontzertu zaharren irudiak ikusi ahal izango dira: alde batetik, Odon Alonsoren zuzendaritzapean, Orfeoiak RTVEko Orkestrarekin batera Cuencan (1969) eta Madrilen (1973) eskainitako kontzertuetako bideoak eta bestetik ETBk 1985eko martxoan San Pedron grabatutakoa. Urte hartan, Euskadiko Orkestrarekin eta berriz ere Odon Alonsoren batutapean, Sorozabalen *Victoriana* eta Prokofiev-en *Alexander Nevsky* interpretatu zituen Orfeoiak.

Era berean, musika eta pintura zurtatu nahirik eta herriko margolariarekin sortutako harreman berezia aprobetxatuz, erakusketan hainbat margolariren lanak izango dira ikusgai. Musikan inspiratutako lanak dira denak eta Pello Alberdi, Juan Jose Altuna, Rikardo Azkargorta, Dani Laskurain, Jesus Mari Lazkano, Luis Laskurain, Manu Muniategiandikoetxea, Migel Okina eta Bingen De Pedronen lanak zintzilikatuko dira. Erakusketan ikusgai izango den material gehiena Orfeoiak azaro aldera kaleratuko duen liburuaren oinarria da. 75. urteurreneko ekitaldiak ere jasoko dira bertan. **B**



"la Caixa"

Fraiskozuri plaza 7. Telefonoa: 943 76 41 16



# MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - **BERGARA**  
 J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - **ARRASATE**  
 J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - **ORDIZIA**

**VOLKSWAGEN LUPO**  
 kotxe baten zozketa!!  
 Bai, zure ikusmenak  
 ondo dio :  
**VOLKSWAGEN**  
**LUPO**  
 zoragarri bat!!



5.000 PTAKO EROSKETA BAKOTZEKO TXARTEL BAT

R.P.S. Nº 421706



Eta ordaintzeko ordutan, albanitila ugari :  
 • MULTIOPTICAS-en Kreditu-txartela. Diru barik  
 eroskeko modurik errazena.  
 • Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan ditzeratzeko  
 modua izango duzu, batere errekaratu barik.



GAZTE TXARTELA  
 baten  
 bidez  
 erabili ezazu  
 MultiOpticas-en



LORTU EZAZU  
 MULTIPTICAS-en  
 «TRAVEL CLUB»  
 PROGRAMAKO  
 PUNTUAK

## VOLKSWAGEN LUPO BATEN ZOZKETA

JANTZIDENDA



# LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA

# ELKAR

## ELEKTRAGINTZA

**ZURE  
ZERBITZURA!!**

**Mota guztietako instalazioak**




**943 76 00 00**

**Koldo Eleizalde, 8.**

**BERGARA**

# ARREGI AROZTEGIA



### SUKALDEAK

Arozlan mekanikoak

Ateak

Horma armairuak

Tarimak eta Parketak

Neoprenozko juntadun

egurrezko leihoak

KAPRESA PVCzko leihoak



**TAILERRA: Urteaga 20. 943 76 11 73**

**ERAKUSKETA: Bidekurutzeta 38. 943 76 31 03**

# ROCK & TXOZNAK

Hasi berri diren rock taldeek gustuko dituztenek Bideberri dute topagunea. Bertako eta kanpoko musika proposamen berriekin txoznen inguruan gozatzeko aukera izaten dute. Herriko taldeei, gainera, zuzenean joteko aukera eskaintzen zaie. Aurten 16 talde izango dira, musika estilo askotakoak. Zortzi talde herrikoak dira; besteak, Euskal Herriko, estauko eta nazioarteko hainbat puntutatik datoz. Rockaren bide guztiak Bideberrira doaz.

•••••  
**Bideberri.**  
 Eguakitz, zapatu,  
 domeka eta  
 astelehenean  
 22:00etan.  
 •••••

Aurten Bergarako 8 taldek joko dute Bideberriko kontzertuetan. Inoiz baino emanaldi gehiago antolatu dira eta, hortaz, sekula baino talde gehiago ikusteko aukera izango dugu. Herriko taldeei hamaika galdera jarri dizkiegu, guztiei berdinak, euren musika gustuei buruzkoak. Hona hemen, beraz, eguakitz, zapatu, domeka eta astelehen gauean Bideberri joko duten Bergarako taldeak.


- 1/ GUSTOKO HIRU TALDE?
- 2/ GORROTO DITUZUEN HIRU?
- 3/ NORI ESKAINIKO ZENIOKETE AMODIO KANTU BAT?
- 4/ ETA GORROTO KANTU BAT?
- 5/ ZERI BURUZ EGINGO ZENUKETE ABESTI BAT?
- 6/ IRLA BAKARTI BATERA ZEIN DISKO ERAMANGO ZENUKETE.
- 7/ NOREKIN JOKO ZENUKETE?
- 8/ ZEIN ARETOTAN JOKO ZENUKETE?
- 9/ ZUZENEAN ZE TALDE IKUSTEA AMESTEN DUZUE?
- 10/ AURTEN ENTZUN DUZUEN ABESTI GUSTUKOENA?
- 11/ ETA GORROTAGARRIENA?



## FACTORIA 77

lazko Santo Tomas eta San Juan Bosco ikasleen egunean egin zuten debuta Pol-Polen Assholes izenarekin. Aurten izena aldatu dute: The Young Ones lehenengo eta Factoria 77 orain dela bi hilabete. Unai Azkaratek (kitarra) taldea laga du eta une honetan lau lagunek osatzen dute taldea: Aitor Aldanondo (kitarra), Dandy (ahotsa), Andoni Aperribai (bajoa) eta Mikel Moñux (bateria). Punka eta rock and rolla egiten dute. Eguakitzean joko dute.

1 / The Clash, Radio Birdman eta Burning. 2 / Backstreet Boys, 7 notas 7 colores eta Latzen. 3 / Johnny Thunders-i eta Humphrey Bogart-i. 4 / Bitoriana-txori eta zuei, irakurle madarikatuei. 5 / Gaur egungo jendearen tontokeriaren aurka. 6 / The Clash-en London Calling, Radio Birdman-en "Radios Appe-



Dr. Explosion

### DOCTOR EXPLOSION

Xixoneko hirukotea estatuko talderik basati, ganberro eta lotsagabeena, eta gaur egun zuzenean entzun eta ikusi daitekeen talderik interesgarriena da askoren iritziz. Oraintsu argitaratutako azken diskoan, "Viviendo del cuento" (Subterfuge), beat, garaje eta sikodelia sixtie soinuak aurki ditzaiegu. Diskoa Seatlen grabatu

dute eta, bertan, Ipar Amerikako gaur egungo zenbait talderen eragina antzeman daiteke; hala nola, Swingin' Neckbreakers, The Imsonniacs edota Green Day ospetsuena.

### AEROBICH

Malasañako harrobitik sortutako taldea da eta, horregatik, bertako taldeen ildoan jarraitzen dute:

punk-rock azkarraren bidetik. Orain arte bi disko argitaratu dituzte, zein baino zein azakarragoa eta azkenak, "Time to Start Kickin' Ass" izenekoak, oso kritika onak jaso ditu. Diskoan, taldearen ohiko punk-rock erritmo bizkorrez gain, rock and roll tankerako doinuak ere aurki daitezke. Kike Turmix-entzat (Pleasure Fuckers) gaur egungo Madrileko tal-



## PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka 32, behea BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65, faxa: 943 76 11 40


ar” eta Lou Reed-en “R’N’R Animal”. **7** / Iggy Pop-ekin. **8** / CBGBn, Roxy Music-en eta 100 club-en. **9** / MC5, Paralisis Permanente eta Dead Boys. **10** / “Lords pragers”, The lords of the new church-ena. **11** / “La copa de la vida” Ricky Martin-ena.

and roll-aren industriari eta gizarte honi. **5** / Geure inguruan gertatzen den edozer gauzari buruz. **6** / Minor Threat-en “Compleat discography”. **7** / Pena ematen digu, baina gustatzen zaizkigun talde gehienak dagoeneko desagertuta daude; halere, gaur egunekoetatik, Ce-rebros exprimidos, Poison Ideia eta gure talde lagunekin joko genuke gustora zuzenean. **8** / Bergarako Gazte lokalean. **9** / Fugazi eta beste mila. **10** / “Pessimistic man” Gospel Killers-ena. **11** / El chaval de la pecaren edozein.

**vet Underground. Euren musika estiloari buruz galdetzean, honako hau erantzun digute: “Eh? Ah!”. Antza denez ez zaizkie etiketak atsegin. Domekan joko dute.**

**1** / Stranglers, Flamin Groovies eta The Velvet Underground. **2** / Elton John, Amistades Peligrosas eta Manolo Cabezabolo. **3** / Leticia Savater-i. **4** / Anifur-i. **5** / Neska bati buruz. **6** / Asko irauten duen bat. **7** / Bokata de merluza. **8** / Asko ordaintzen duten areto batean. **9** / Kim Salmon... **10** / Ez dugu abesti onik entzun aurten. **11** / Pitoren CD pirata.

FRENOPATICS



**FRENOPATICS**

1997ko Gabonetan sortutako taldeak, lehen emanaldia iazko uztailan eskaini zuen Pol-Pol tabernan. Hardcorea eta punka egiten dute. Honako hauek osatzen dute Frenopatics: Olabarria (bateria), Corral (baxua), Elorza IV (kitarra) eta Belas (play-back-a). Entseiu lokala Fly Shit taldekoekin batera konpartitzen dute Seminarioan. Zapatu gauerako iragarri dituzte.

**1** / BAP!!, Black Flang eta Eskoriatza. **2** / Factoria 77 (ja, ja, ja), La Orquesta Mondragon eta Ertzantzaren Musika Banda. **3** / Merezi duenari. **4** / Rock

THE ELEVATORS



**THE ELEVATORS**

Mikelek (kitarra), Aitorrek (baxua) eta Kepak (bateria) osatzen dute The Elevators taldea. Iazko Santo Tomasetan egin zuten debuta eta, harrez gero hainbat emanaldi eskaini dituzte. Rock and roll azkarra eta psikodelia dituzte gustuko: The Stoogges eta Kim Salmon bezalako taldeak, eta baita Flamin Groovies edo The Vel-



X-AT

KANPUKUAK



derik onena dugu. Aurkezpen gutun hoberik?

**III**  
Errenteria eta Donostiako musikariz osatutako taldea. Orain dela bi urte “Donostia Hiria Pop-Rock lehiaketa” irabazi zuten eta horrek, han eta hemen ezagutzera emateko aukera eskaintzeaz gain, bost kantuz osatutako CDA,

“Mercywaiter” izenburukoa, grabatzeko aukera eman die. Bestalde, oraintsu, Bilbo Hiria lehiaketan saritu dituzte eta une honetan, buru belarri ari dira bigarren diskoa grabatzen.

Led Zeppelin mitikoak, edota Black Sabbath dituzte gustuko eta talde hauen eragina nabaria da euren kantuetan. Halere, gaur egungo rock progresiboaren eta

Afghan Whigs edo PJ Harvey bezalako en iturrietatik ere edaten dute.

**TAV FALCO & THE PANTHER BURNS**

Tav Falco txakur zaharra dugu rock and rollaren munduan. 80ko hamarkada hasieran Panther Burns sortu zuen Alex Chilton-ekin batera.

*Iturkintz Berri*

**INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa**

**Jai zoriontsuak!**

Amillaga 1 (B Pabilioia) 943 76 28 04 BERGARA

1 / GUSTOKO HIRU TALDE? 2 / GORROTO DITUZUEN HIRU? 3 / NORI ESKAINIKO ZENIKETE AMODIO KANTU BAT? 4 / ETA GORROTO KANTU BAT? 5 / ZERI BURUZ EGINGO ZENUKETE ABESTI BAT? 6 / IRLA BAKARTI BATERA ZEIN DISKO ERAMANGO ZENUKETE. 7 / NOREKIN JOKO ZENUKETE? 8 / ZEIN ARETOTAN JOKO ZENUKETE? 9 / ZUZENEAN ZE TALDE IKUSTEA AMESTEN DUZUE? 10 / AURTEN ENTZUN DUZUEN ABESTI GUSTUKOENA? 11 / ETA GORROTAGARRIENA?

X-AT

Aitorrek (ahotsa), Ikerrek (baxua), Dubik (bateria) eta Manuk (kitarra) osatzen dute taldea. Labegaraietako eskola zaharretan entsaiatzen dute eta soinu gogorak (metal, trash...) dituzte gustuko. Hardcore eta trash doinuen nahasketa egiten dute. Domeka gauean herriko beste hiru talderekin batera joko dute Bideberrin.

1 / Sepultura, Anestesia eta Hamlet. 2 / (-). 3 / Lagun berezi bati. 4 / Ideologia faxista, arrazista, e.a. dutenei. 5 / Gu-dei buruz. 6 / Bat baino gehiago. 7 / Biohazard, Hamlet, Sepultura, Indecision, Anestesia... 8 / Jam aretoan. 9 / Körn, Pro-pain, Machine Dead, Fear Factory eta lehen aipatutako taldeak ere bai. 10 / Bat aukeratzerakoan ez gara ados jarri. 11 / (-).

REQUIEM

Bergarako talderik beteranoe-na. Azkenaldian jotzeari lagata zegoen, baina orain dela hiru hilabete ekin zioten berriz ere eta sekulako gogoarekin heldu diote. Horregatik, eurekin harremanetan jartzeko telefonoa ere eman digute: 943 76 39 77 (Martin). Martin (ahotsa), Imanol (ba-




xua), Martin de Goñi (sintetizadoreak), Aitor (bateria) eta Jose (kitarra) dira. Rock siniestroaren inguruan murgiltzen dira. Aurten Bideberriko kontzertuak direla eta, sortu diren hika-miken inguruan haserre dira. Euren ustez, bertako taldeei arreta gehiago eskaini eta emanaldiko diru gehiago eman beharko liekete antolatzaileek, "guri 18.000 pezeta bakarrik emango dizkigute eta kanpoko batzuei 400.000. Onartezina da" dioskue. Domekan joko dute.

1 / The Cult, Bauhaus eta AphexTwin. 2 / Asko eta asko. 3 / Neska lagunari (Martin). 4 / Nire neska laguna izandakoari (Imanol). 5 / Bizitzako gora-beherei buruz. 6 / Requiem. 7 / The Cult taldearekin. 8 / Donostiako edozeinetan, Anoetan esaterako. 9 / Paralisis Permanente. 10 / Corcobadoren "Coches de choque". 11 / Eurovisionera doana.


NIGHTRAINS

Urtebete inguru daroate elkarrekin eta pare bat emanaldi eskaini dituzte Pol-Pol tabernan. Manu Arrillagak (bateria), Mikel Etxeberriak (kitarra), Ibon Larrañagak (kitarra), Aitzol Mujikak (baxua) eta Iñaki Jauregik (ahotsa) osatzen dute taldea eta hainbat

musika estiloren fusioa egiten dutela esan daiteke. Halere, Pearl Jam, Soundgarden, Faith no More, Van Halen, Led Zeppelin eta, orohar, metal talde klasikoaren usaina senti daiteke euren abestietan. Domeka gauean Bideberrin.



Bluesaren eta Ipar Amerikako ohiko rock and rollaren inguruan mugitzen dira Tav Falco & The Panther Burns. Menphisekoak, baina, topikoetatik aldentzen dira eta musika espresio originalen bila dabilta etengabe. Azken diskoan, "Shadow Angels and Disappearing Dancers" izenburuko, esaterako, tangoaren eragin-igarri daiteke.



MEOWS

Bartzelonarrak dira eta power-poparen inguruan mugitzen dira. Australiako eta Estatu Batuetako tankera horretako talde mordo baten eragina antzematen zaie. Halere, Detroit-eko talde rockeroen edota punk talde amerikarren musika ere oso gustuko dute eta hori igartzen da euren kantueta. Taldea 1992an sortu zen eta hain-



bat disko txiki argitaratu dituzte, tartean "Private Song" arrakastatsua biltzen duena. Bergarako



ONGI PASA JAIK!



Zure Opari Donda Bergara

Barrenkalea 27

**1** / Hiru baino gehiago, taldekide ba-koitzaren gustuen arabera: Metallica, Deep Purple, Steve Vai, Pearl Jam, Javier Alvarez... **2** / Inor ez. **3** / (-). **4** / Politikoei eta ustelkeriari orokorrean. **5**. Ilunabarrari buru. **6**. Elvis Presleyren "Crging in the chapel" eta Metallicarean "And justice for all". **7** / Led Zepelin-ekin. **8** / Wembley-ko estadioan. **9** / Metallica, Deep Purple, Steve Vai, Pearl Jam, Javier Alvarez... **10** / "Snake bite love", Mötörhead-ena. **11** / (-).

FLY SHIT



## FLY SHIT

Orain dela bi urte sortutako taldea, Eloik (bateria), Ostok (baxua), Elorzak (kitarra), Unaik (kitarra) eta Setienek (ahotsa) osatzen dute. Hardcorea dute gustuko eta ildo horren inguruko musika egiten dute. Aurten Bideberrin joko duten taldeen artean soinu bateratuena duena izan daiteke talde hau. Astelehenean joko dute.

**1** / GUSTOKO HIRU TALDE? **2** / GORROTO DITUZEN HIRU? **3** / NORI ESKAINIKO ZENIKETE AMODIO KANTU BAT? **4** / ETA GORROTO KANTU BAT? **5** / ZERI BURUZ EGINGO ZENUKETE ABESTI BAT? **6** / IRLA BAKARTI BATERA ZEIN DISKO ERAMANGO ZENUKETE. **7** / NOREKIN JOKO ZENUKETE? **8** / ZEIN ARETOTAN JOKO ZENUKETE? **9** / ZUZENEAN ZE TALDE IKUSTEA AMESTEN DUZUE? **10** / AURTEN ENTZUN DUZUEN ABESTI GUSTUKOENA? **11** / ETA GORROTAGARRIENA?

**1** / Subterranean Kids, BAP!! eta Poison Idea. **2** / (-). **3** / Ez dakigu. **4** / Politiko nazkagarri askori. **5** / Gure bizitzako gora-beherei buruz. **6** / BAP!! taldearen "Zuria beltz" eta Subterranean Kids-en "Ya no hay tiempo". **7** / Bereziki, inorekin ez. **8** / Jendez gainezka dagoen areto txiki batean, eta eskenatokia ikusleriarengandik oso gertu badago hobe. **9** / Bad Brains, BAP!!, Suicidal Tendencies eta Poison Idea. **10** / Ez dakigu ba!. **11** / Saltzeko bakarrik egiten diren horietako bat.


## ZARTATEKO

Bideberrin joko duten taldeetatik denbora gutxien daramana. Iazko uda amaieran hasi ziren eta maiatzaren 7an egin zuten debuta Antzuolako Gaztetxean. Pazkuetakoa, plaza-ratzen diren bigarren aldia izango da. Taldeko bost partaideek 16-17 urte dituzte. Honako hauek dira: Fubo (baxua), Elexpu (kitarra), Boli (kitarra), Uribe (ahotsa) eta Kito (bateria). Punk rock azkarra egiten dute eta Kortatu dute gustuko. Astelehenean izango dira Bideberrin.

**1** / Kortatu, Anestesia eta Kashbad. **2** / Latzen, La Polla eta Su Ta Gar. **3** / Kle-

menta, Artiz baserrikoari, entsaiatzeko oilotegia lagatzeagatik. **4** / Gorrotatzen gaituzten guztiei. **5** / Lagundu gaituzten guztiei buruz eta, gehienbat, oilotokiaren inguruan. **6** / Bat ere ez. Irrati bat eramango genuke. **7** / Kortaturekin. **8** / Bergarako Gaztetxean. **9** / Zartateko. **10** / "El informal"eko "La alegría de la huerta...". **11** / La oreja del chaval de la pecarenak eta El chaval de la oreja de Van Gogh-enak (ja, ja, ja).

ZARTATEKO



jaietan euren lehen iraupen luze-koa aurkeztuko digute.

## RED SHIFT

Madrileko laukoteak argitaratu berri duen "I-Scream" CDa aurkeztuko digu Bideberrin. Aldaketa anitzeko eta erritmo azkarreko doinuak lantzen dituzte. Zuzeneko basatiarekin, salto ugari eta guzti, aho zabalik lagako du Bidebe-

rrin bildutako entzuleria. Zapatu gauean izango dira.

## ZOMBI ZÜ

Orain dela hiru urte, 1996an, Oviedon sortutako boskoteak pop-rock tankerako musika egiten du. Sofia eta Ana ahizpak dira taldeko abeslariak eta Veruca Salt, Garbage edota Dumping bezalako taldeen eragina nabari

zaie iaz argitaratutako "Noisy Toxic Dumping" estraineko iraupen luzekoan.

## LIF

Hondarribitarren musika Hardcorearen inguruan koka dezakegu. Fermin Muguruza eta Dut-ekin batera (hauen lokal berean entsaiatzen dute) eman ziren ezagutera. Arestian eman dute argita-

ra Esan Ozenkiren eskutik estraineko diskoa eta azkenaldian Euskal Herri osoan zehar aurkeztu dituzte bertan biltzen diren abestiak.

Dut hirukotearen estilo antzekoa, haiengan eragina duten taldeak dituzte gustuko: Hamlet, Biohazard edo Rollins Band. Riff kitarreroak eta Panterra kantaria- ren ahotsa dira Lif-en ardatza.

ONDO PASAU  
JAIKAK!



San Anton auzoa Tf. 943 76 30 24

JAIKETAKO  
MENU BEREZIAK  
ZATOZTE KOADRILAN!



# IPINTZA institutua

1999/2000 ikasturtea

**BATXILERGO MODALITATEAK**  
 TEKNOLOGIKOA  
 GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK  
 NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK

**Bilera informatiboa**  
 maiatzaren 27an  
 18:30etan  
 Ipintza Institutuko aretoan

**Batxilergorako aurrematrikula epea**  
 ekainaren 1etik 9ra bitartean, 9:00etatik 13:30era.

Ipintza institutua: Boni Laskurain 19. Tf: 943 76 31 42 / 43

# GIDE COLOR



**Dekorazio profesionala**

**Denetik pintura-dekoraziorako**

**Norberak etxea margotzeko  
 pinturak**

**Milaka kolore  
 egiten ditugu  
 momentuan**



*Ondo pasau  
 jaiurretan!*

**Luis, zuen zerbitzura.**

Ordutegia: 08:00-13:00 eta 14:30-19:15. Zapatuetan: 09:30-13:00  
 Tf. 943 76 52 42. Faxe 943 76 56 17. Amillaga 5 (Renault ondoan)

# BERGARAKO UDALEAN

## ZURE ZAIN GAITUZU



BERGARAKO UDALA

	<i>Faxa</i>	<i>Telefonoa</i>
<u>Bulego Orokorrak</u>	943 77 91 63	943 77 91 00
<u>Alkatetza</u>		943 77 91 01
<u>Artxiboa</u>		943 77 91 32
<u>Auzoak eta mendiak</u>		943 77 91 41
<u>Bideo zerbitzua</u>		943 77 91 58
<u>Eguneko zentrua</u> (3. adinekoentzat)		943 76 21 40
<u>Euskara zerbitzua</u>		943 77 91 66
<u>Gazte Bulegoa (Kultur etxea)</u>		943 77 91 57
<u>Gizarte ongizatea,</u> <u>osasuna, enplegua</u> <u>eta kontsumoa</u>		943 77 91 65
<u>Hirigintza, obrak eta</u> <u>ingurugiroa</u> (bulego teknikoa)		943 77 91 68
<u>Idazkaritza</u>	943 77 91 63	943 77 91 00
<u>Igerilekuak</u>		943 76 20 51
<u>Kirolak</u>		943 77 91 67
<u>Kiroldegia</u>		943 76 56 41
<u>Kontuhartzaitetza</u>		943 77 91 64
<u>Kultur etxea</u>	943 77 91 69	943 77 91 58
<u>Liburutegi nagusia</u>		943 77 91 62
<u>Liburutegia (Osintxu)</u>		943 76 23 76
<u>Liburutegia (Angiozar)</u>		943 76 16 19
<u>Ludoteka-Udalekuak</u>		943 76 23 76
<u>Mizpirualde,</u> <u>zaharren egoitza</u>		943 76 13 68
<u>Obra eta Zerbitzuak</u>	943 77 91 20	943 77 91 52
<u>Ondare artistikoa</u>		943 77 91 61
<u>Turismo bulegoa</u>		943 77 91 28
<u>Udal euskaltegia</u>		943 76 44 53
<u>Udaltzaingoa</u>		943 77 91 06
<i>POSTA ELEKTRONIKOA</i>		
<i>Bergara@udal.gipuzkoa.net</i>		<i>Udaletxean</i>
<i>Berg.liburu@udal.gipuzkoa.net</i>		<i>Liburutegian</i>

Pentekoste jaiak:

Elkarrekin ondo pasatzeko egunak!



Javier Sanchez, toreroa:

# "Toreoan adorea izaten da guztiaren oinarria"

● ● ● ● ●  
**Ibargaraiko  
 zezen  
 plazan.**  
 Domekan  
 18:00etan.

● ● ● ● ●


**Zezenzaleak taldeak antolatutako txekorketa izango da domekan. Javier Sanchez salamancarrak eta Omar Guerra jaendarrak Salamancako Valrubio ganadutegiko bina txekor txuliatuko dituzte Ibargarain jarritako zezen plazan. Sanchezek (21 urte) domekan faena bikaina egitearekin egiten du amets.**

**N**oiz erabaki zenuen torero izatea?

**E.** Nire familia ganaduzalea izan da eta txikitatik izan dut torea gusto. 16 urte nituenerako argi neukan torero izan nahi nuela; 18 urterekin, Salamancako Zezen Eskolan sartu nintzen. Lehendabiziko txekorra 97ko otsailean akabatu nuen eta urte bereko abuztuaren 10ean traje distiratsua jantzi nuen aurreneko aldiz, Castellanos de Moriscos herrian. Hortik aurrera nahiko ondo joan zait: 97an Ciudad Rodrigoko lehiaketan 3. sailkatu nintzen, 98an lehen belarria lortu nuen Chinchonen eta aurten Estatu mailako nobillero txapelketa irabazi dut Vitigudinon. Majisteritza ikasketak egiten ari naiz baina denbora gehiena torea izateko gertatzen ematen dut, lau bat ordu egunean.

**G.** Bergarara etortzeko gonbidapenak ustekabeen harrapatu zintuen?

**E.** Juan Jose Garcia Zezen Eskolako zuzendaria da nire karrera zuzentzen due-



Javier Sanchez Bergaran izango dugu domekan.

na eta berak komentatu zidan Bergaran toreatzeko aukera nuela. Ganadutegia ere ezagutzen dut eta gustatzen zait kartela. Ondo dago norberaren inguruko herrietan toreatzea baina beti ere

eskergarriagoa da kanpotik deitzen dizutenean, zure lana baloratzen dutela adierazten duelako horrek.

**G.** Zela azalduko zenuke zure burua toreatzeko orduan?

**E.** Toreoan adorea izaten da guztiaren oinarria eta alde horretatik behintzat ez daukat arazorik. Bestalde, torero teknikoak naizela esango nuke eta estetikari ere garrantzi handia ematen diot. Entrenamenduetan perfekzioa bilatzen dut, piskanaka-piskanaka hobetzen joateko asmoa daukat.

**G.** Txekorketaren aurreko orduak zela bizi dituzu?

**E.** Domekan iritsiko naiz Bergarara, hiru banderillero eta ezpata-mutilarekin. Koadrilakoak joango dira txekoren zozketara eta ordu bata aldean bazkalduko dut. Gero paseora irteea gustatzen zait eta txekorketa baino ordu bete lehenago jantzen hasten naiz, hotelean, ezpata-mutilaren laguntzarekin. Oso sinisduna naiz eta jantzi ondoren nere burua Valdejimenako Amabirjinari, Maria Auxiliadorari, Mirarrietako Kristoari edo Cabrerako Kristoari gomendatzen diet, txekorketan lagundu nazaten. Ilusio handiz noa Bergarara eta ikusleei faena ona eskaini nahi nieke. **B**

## Gracian

Usaindegia - Mertzeria

## Jai zoriontsuak!!

Bidekurutzeta 6 Tf. 943 76 10 25



# ARDATZA


## Brikolaketa

Masterreka 4, behea Tf. 943 76 18 93

*Egurrezko materiala  
eskuz pintatzen dugu.  
Eskulanetarako gaiak.*

**ONDO PASAU JAIXAK!**



  
**AZKARATE  
AROSZTEGIA**  
*Arotzak gara.*



50 urte baino gehiagoko  
esperientzia  
eta profesionaltasuna  
egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural, propano  
eta butano eta berogailu  
instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.  
Bainuko altzariak.

Jai zorientsuak izan  
ditzazuela!

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA  
BAINURAKO ALTZARIAK

**Larrañaga  
Eguren, B. M.**

Juan XXIII  
Tf. eta Faxe 943 76 11 88  
20.570 BERGARA

# Garai bateko IRUDIAK

Garai bateko Pazkuetako irudiak berreskuratu ditugu aste honetako ale berezian. 1960 eta 1970 hamarkadetako ekitaldirik arrakastatsuenetakoa estanpen lehiaketa zen eta orduko protagonistengana jo dugu beraien esperientzia ezagutzeko.

ARGAZKIAK: ROMAN LARRANAGA. BERGARAKO UDAL AGIRITEGIKO FONDOKA.



## Espainiako Itzulia, errepideetako soluzioa

Duda barik, 1970eko hamarkadan, estanpen lehiaketa izaten zen Pazkuetako ekitaldirik arrakastatsuenetakoa. Lehendabiziko urteetan partaidetza handia zen baina piskanaka-piskanaka indarra galtzen hasi zen lehiaketa, estanpak guztiz desagertu arte. Goiko argazkia 1972 urtekoa dela uste dut. Estanparen izenburua "La Vuelta a España, solución de las carreteras" izan zen. Ziurrenik gaurko gazteek ez dute jakingo garai hartan Espainiako Itzulia Euskal Herritik pasatzen zenik eta zenbait urtetan Bilbon amaiera izan zuenik ere. Askotan gertatzen den moduan, Espainiako Itzulia etortzen zen bakoitzean, Diputazioak errepideen partxeo bat egiten zuen, txirridulariei bidea errazteko. Horrelakoetan barririk akordatzen ziren konponketak egiteaz eta hori salatzeko-edo egin genuen estanpa hura, batzuk injineru jantzita (plano eta guzti), beste batzuk errepideetako langileena egiten (benetako konponketaren batzuk egin genituen herriko kaleetan egun hartan) eta beste hainbat mailot eta kuloteekin, tropeleko onenak. Ziur argazkian agertzen direnek lerro hauek irakurtzen dituztenean elkarrekin igarotako momentu onak gogoratuko dituztela. Besarkada bat guztiei.

*Pello Belastegi "Peito"*

## La verbena de la paloma

Hor gaude, Plazako tablaun, elegante jantzita, neskak castizenak eta mutilak, berriz, chulapoen itxura dotorearekin. Argazkia 1968ko Pazkuetakoa dela uste dut. Orduan Juventudes elkartearen sartu berriak ginen, nik 16 urte neuzkan orduan. Han ibiltzen zen beste koadrila batek beraiekin irtetzeko proposatu ziguten gure koadrilako batzuri. Felix Laskurain, Jose Luis Egin, Amaia Mujika eta beste hainbat izan ziren estanpa haren bultzatzaile nagusiak eta guri taldea osatzeko deitu ziguten. Trajeak egin eta 20 lagun inguru atera ginen Pazkuetako martitzenean. Ordurarte jaietako astelehenetan estanpen lehiaketa eta martitzenean koadrilena egiten ziren baina azken hau programatik desagertu ondoren, estanpen lehiaketa martitzenean izaten zen. Organillo eta guzti ibili ginen egun eguzkitsu hartan eta sariren bat eskuratu genuen, hirugarrena-edo. Akordatzen naiz La Parrantan bazkaldu genuela. Los Politos fanfarea izan zen giroa alaitzen egun osoan eta primeran pasa genuen. Argazkian German Larrañaga, Mila Manzano, neu, Amaia Mujika, Garate (Soraluzekoa) eta Pako Astiazaran agertzen gara.

Esan bezala, Juventudes-en ematen genuen denbora gehien. Tabernak goizeko 4ak alderako itxiko ziren jaieran eta gero Juventudesera joaten ginen. Herriko "artista"ren batzuk ere agertzen ziren bertara eta juerga ederra izaten zen. Ordukoak dira gure lehen gau-pasak. Eta goizean goiz Arrasatera lanera autobusez joaten zirenek gure txantxak jasan behar...



*Fernando Otaño*

# ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA



## Aspertuarte

Aspertuarte zen gure txarangaren izena baina Pazkuetan aspertzeko astirik ez genuen izaten. Parrranda luzeko eta lo gutxiko egunak ziren haiek. Txaranga 1970eko hamarkadaren hasieran sortu zen eta bertan bi koadrilatako mutilak ibiltzen ginen, Betti Ona eta Txipironekoak hain zuzen. Guztira, 40 bat lagun izango ginen. Deban antzeko talde bat ikusi genuen eta ideia hura Bergarara ekartzea pentsatu genuen. Udalak erreztasun guztiak eman zizkigun eta oker ez banago jantziak ordaindu zizkiguten: prakak txuriak, kamiseta urdina eta marinerito txapela. Urte baten-edo jaietako astelehenean irten ginen bakarrik baina hurrengoetan astelehen eta martitzenean. Beste herri batzuetara joateko ere deitzen ziguten zenbaitetan: Ordiziara, Ormaiztegiara... Behin, Osintxuko Kofraixetara zapatuan joan eta baten bat astelehenean azaldu zen etxean... Pentsau!

Pazkuetan goizeko laurak arte ibiltzen ginen kalez kale eta goizeko 8etan diana jo behar izaten genuen. Akordatzen naiz Verdury Halleko berbenak oso ondo egoten zirela, justu argazkian ikusten den edifizioan merkatua zegoen orduan eta goiko pisuan dantzaldiak izaten ziren. Argazkiaren aurrealdean, besteak beste, Gonzalo Arrondo (bonboa), Juanjo Moreno (soinua), ni neu (kaja), Manu Iztueta (soinua), Juanjo Gonzalez (txapak), Luis Mari Sotil (bonboa) eta "Panti" Oregi gaude. Jos Martinez eta Panti ziren txarangako artistak eta lerro hauetan Pantiren lana azpimarratu nahiko nuke. Laister arte.

Jesus Bolibar "Boli"

## Heidi eta konpainia

Heidi-ren estapan parte hartu genuen askori Pazko haietako ajea eta nekea gainetik kentzea dexente kostatu zitzaigun. Gehienok kanpoan interno geunden UBI ikasten. Batzuk urruti (Jon Aspiazu, Juan Antonio Markiegi, ni neu...) eta beste batzuk hemenditxik (Miren Otaño, Martin Aspiazu, Izaskun Labaien, Inmaculada Gallastegi...) estapan forma ematen joan gintzaizkion. Argazkia 1976ko ekainaren 8an aterata dago eta garai hartan "Heidi" izenburuko marrazki bizidunek sekulako arrakasta loritu zuten. Argazkian agertzen garenok Inmaculada (Clara), Izaskun (Heidi), Juan Antonio Markiegi (artzaia) eta ni (Heidiren aitona egiten) gara.

Antolatzaile eta bultzatzaile nagusienak Juste eta Maria Amenabar izan ziren; euren lana, beste batzuen artean, traje, soineko, makilajeaz arduratzea izan zen. Ezin ahaztu Mari Paz Alustizak estapanarako egin zituen apainketa lanak (mendi, marrazki...).

Jai guztiak Labegaraietako Zerrajerako kotxeretan ematen ginen karroza montatzen. Hasieran, karroza eramateko trailerra pentsatuta geneukan baina azken orduan eta presaka kamioi txikiago bat erabili behar izan genuen, trailerra ez zelako Elementaleko tuneletik pasatzen. Azkenik, Zumelagan bazkaldu genuen bapo-bapo.

Damaso Gallastegi



**Kosmetika.  
Oparigaiak.  
Eder gela.  
Bio solariuma.**

*Jai zoriontsuak  
izan ditzazuela!*

**Igaro**  
G

Usaindegia

IGARO USAINDEGIA, BARRENKALEA 35. TF: 943 76 17 27



## “La censura”, 1973

1973ko Pazkuetako azken eguneko estampa lehiaketan gaude. Haiek bai garaiak!! Hain urrun eta, aldi berean, hain gertu... Zergatik ez dira gaur estanpak egiten? Orain errezagoa litzateke karrozaren lemarekin asmatzea, orduan Guardia Zibilaren baimena behar zen eta. 1972tik 1975era bitarteko lehiaketetan hartu nuen parte eta jaiak baino hilabete

lehenago Udaletxean karrozaren lema, detaile guztiak zehaztuta eta bozetoak ere aurkeztu beharra zegoen. Beti zentsuraren beldur izaten ginen. Hala eta guztiz ere, jendearen algarak sortzen genituen eta guk ere primeran pasatzen genuen.

Goiko argazkiko estanparen lema “La censura” zen eta lehen saria lortu genuen. Garai hartan artistek eta publikoak sufritzen genuen zentsura salatu

nahi genuen. Horretarako karroza bi zatitan banatu genuen; alde batetik orduko Frantzia ikus zitezkeen filmeak (El ultimo tango en Paris, eta abar) islatzen genituen eta hemengo egoera adierazteko, berriz, zentsore talde bat agertzen zen pelikulak guraizekin moztzen.

Garai hartan filme ausartagoak ikusteko jendeak Frantziara egiten zituen bidaiak azaldu nahi genituen. Guk zinegileen papera egiten genuen eta herriko kaleetan filme bat errodutzen egongo bagina bezala irten ginen, kamara eta guzti. Orduan bakarrik bakeroen eta erromatarren filmeak ikusten genituen eta Plazan horrelako filmeen parodia egin genuen. Pelikulako gaizkilea urkatzerakoan susto ederra hartu genuen!! Ez genuen soka askatzen asmatzen eta ia benetan akabatu genuen gizajoa!!

Inportanteena herritarrek goiz atsegin bat pasatzea zen eta Jai Batzordeari lehiaketa hura berreskuratzeko eskaera egingo nioke. Imajinario handiko jendea zegoen orduan: Kikio, Txikia anaiak, Tomas Astaburua-ga, Jabier bere anai, Peito, Jabier Zabaleta, Jesus Mancebo eta beste asko (barkatu guztien izenak ez gogoratzeagatik). Sariaren bat irabazten bagenuen, Lasa jatetxera joaten ginen bazkaltzera eta Juanitak ederki asko atenditzen genituen. Itzuliko ez diren garaiak...

Iñaki Rubio

## Nuklearrik? Ez, eskerrik asko

Maiatzak urte hartan, 1978, hamaisei egun zituen (edo hala dio jaso genuen sariak) argazki hau egin zenean. Herriko jaiak ziren eta asteartean, urtero ohi zen bezala, kuadrilen eguna ospatzen zen, hamaika aktuz jantzitako egunean estanpak bere lekua izanik.

Urte horretan, Bergarako komite antinuklearretan genbiltzanok, estampa egitea erabaki genuen Lemoizen kontrako kanpainaren barne ekintza egokia izango zelakoan eta Olaso dorrearen azpian zegoen garagea lortu genuen muntaia aurrera eramateko.

Bizpahiru asteko lana izan genuen parte hartu genuenok ideia, egur, txapa eta tornilloz osaturiko puzzle hura astearte goizean prest izan eta bere funtzioa bete zezan: Lemoizko zentral nuklearrari ezetza ematea eta une berean bai montaian parte hartu genuenok bai ikustera etorri zirenak gozatzea (edo hori espero genuen).

Argazkian gaudenok, Manu Otamendi (betirako bihotzean izango dudana laguna), neu, Lucio Sanchez eta Juanjo Escribano gara baina kontuan izan beste lagun mordoa zegoela geure inguruan beste betebeharreran lan eginez. Guztiei besarkada beroena.

Iñaki Ibabe



# ederTU

BARRENKALEA 23 TF. 943 76 29 65

Ondo pasau  
Bergarako jaiak!

## Sua ezin itzaldu

**E**z dut ondo gogoratzen estampa hau zein urtetan egin genuen baina 1976koa izan daiteke. 18 urte genituen orduan eta ilusio handiz hartu genuen parte lehiaketan. Kontua da jaixak baino hilabete batzuk lehenago sute bat izan zela Zubieta edo Artekaleko etxe batean eta orduan suhiltzailerik ez zegoenez, horren kritika egitea pentsatu genuen. Masterrekako Cinema itxita zegoen dagoeneko eta bertan prestatu genuen estampa; egurrarekin eta kartoiarekin etxe bat egin genuen eta bonberoen kotxe modura Gerardo De Pedroren Citroen 2CV kotxe gorria erabili genuen. Anbulantzia batekin irteera ere pentsatuta geneukan baina azken momentuan kale egin zigun...

Jende asko zegoen Plazan egun hartan eta etxeari sua eman ondoren, izerdi ederrak bota genituen sua itzeldu ahal izateko. Cineman hartutako extintoreak erabili genituen baina etxe barruan disolbente lata bat ahaztu zitzaigun eta ez zegoen modurik hura itzaltzeko. Suaren marka urtetan geratu zen Plazako zoruan!! Argazkian jendea falta bada, honako hauek argazkikoak, ezkerretik eskumara: zutik, Gerardo De Pedro, Miguel Moreno (kaskoarekin), Juan Luis Luarizaristi, Jabier Osinaga eta Amando Blanco. Eta lurrean jarrita, Iñaki Vicente, Jesus Angel Oroiz, Jose Peñaranda, Miguel Perez, Lorenzo Sanchez, ni, "Piti" Alzola eta Josuren Murgizu. Oker ez banago bigarren saria eman ziguten eta zelebratzeko Lasan bazkaildu genuen. Juerga ederra botako genuen orduan!!

Jose Ramon Larrañaga



## Koadrilen lehiaketan txapeldunak

Oroitzapen oso onak ekartzen dizkit gogora argazki honek. Koadrilen lehiaketa egiten zeneko argazkia da, 1965. urtekoa. Argazkiko gizonak dantzariak ziren garai hartan eta gu beraiekin ibiltzen ginen. Ramon Etxaniz eta Jose Ramon Lazkano txistulariak eta Mariasun Mujika eta Dunixi Olabarria neska-mutikoak gurekin atera ziren. Zuri jantzita, mahonezko gerriko eta Bergarako eskudoarekin irten ginen. Uste dut Joakin Etxanizen ideia izan zela. Consuelo Ibarrek bordatu zituen eskudo guztiak eta ikurriña ere geuk egindakoa zen (dantzariak gero urtetan erabili izan dute ikurriña bera). Lehenengo saria irabazi genuen baina nahiko polemika egon zen. San Antonio auzokoe, Don Serafinekin, sekulako estampa gertatu zuten eta ia auzo guztia marinela jantzita etorri zen kalera. Baina koadrilen lehiaketa zenez, ez zieten saririk eman eta guk eskuratu genuen txapeldunen kopa eta diru saria. Afari batekin ospatu genuen.

Hurrengo urtean estampen lehiaketa egiten hasi zen eta orduan San Martzialen igoyerari buruzko estampa gertatu genuen, burdi eta guzti. Argazkian agertzen garenok hauek gara: zutik, Luis Mari Belastegi, Maria Luisa Bengoa, Luis Larrañaga, Pilar Iñarra, Jose Garitano, Begoña Madariaga, Jabier Lizaralde, Mari Tere Alberdi (erdi makurtuta), Consuelo Ibarra, Jose Mari Guridi, Fernando Gardoki, Asun Belastegi, Juan Mari Alberdi, Maria Dolores Mendizabal, Maribi Leturia eta Jose Ramon Lazkano. Makurtuta, berriz, Rosita Uribarren, Carlos Gallastegi, Luis Mari Beistegi, Jose Luis Mendizabal, Mari Tere Retolaza, Elisa Ugarte, Patxi Leturia eta neu.

Beatriz Guridi



# NINIKA

Ramon Maria Lili 8. Tf. 943 76 10 01

LOREAK MUNDU  
OSOAN



INTERFLORA

# Ioradenda

Ondo pasau Bergarako jaietan!



# LA PUERTA AL INGLES, S. L.

## 1999KO UZTAILEKO IKASTAROA

### MATRIKULA ZABALIK



#### INGELESA

- MAILA guztiak
- Egunero, BI ORDUko klaseak
- GOIZEZ nahiz ARRATSALDEZ
- CAMBRIDGEko azterketetarako prestaketa
- ERREKUPERAKETA klaseak
- 6 URTetik gorako haurrentzako eta HELDUentzako hastapen klaseak
- MATRIKULA BARIK
- Klaseen hasiera, UZTAILAREN 1ean



*Udako ikastaroan parte hartzen duten ikasleek EZ dute 1999ko iraila-2000ko ekaina ikasturteko matrikula ORDAINDU BEHARRIK izango!*




INFORMAZIOA: Burdiñate 5, Bergara Tf. 943 76 30 01

# Presoterapia

Tratamendu berezia arazo bakoitzerako:

*Informa zaituz.*


- Drenaje linfatikoa
- Zainetako zirkulazioaren drenajea
- Zelulitisaren kontrakoa
- Argalduostekoa
- Kongestioa kentzekoa
- Barize txikiak



Barrenkalea 25. Telefonoa: 943 76 16 97

# ALZAS elektragintza

Korronte alferno eta  
zuzeneko makina  
elektrikoen eta abiada  
haundiko induzitu  
**konponketa eta**  
**bobinaketa**



Antigua auzoa 3, 20577 ANTZUOLA • Telefonoa: 943 76 64 14 • Faxe: 943 76 62 99



## OLABE

*okindegia - gozotegia*

Jai goxo-  
goxoak  
izan  
ditzazuela!



Zurradero 2.

Tf. 943 76 01 26

Matxiategi 4.

Tf. 943 76 57 99

Bergara



Trapu Zaharra antzerki taldea

# Manteca senar-emazteen gora-beherak kalean

San Martin  
plazan.

Domekan  
19:30etan.

Senar-emazte batzuk bere ilobaren ezkontzara datoz. Auto zaharrak, halere, bidean laga ditu, kale erdian, ez atzera, ez aurrera. Ezkontzara garaiz helduko ote dira? Emakumea, bere iloba maitearen amapontekoa, urduri jartzen hasia da eta bere onetik atera dira biak. Egoera larria benetan...

Trapu Zaharra Errenterriko antzerki taldeak "Aberia" izeneko antzezlan eskainiko du domeka arratsaldean San Martin plazan. 1982. urtean sortutako taldea, kaleko antzerkietan espezializatu da eta asko dira han eta hemen eskaini dituzten lanak eta emanaldiak. "Aberia" lanaren aurretik, "El vengador enmascarado" (dena aldebesteren ateratzen zaion super heroï bati buruzko lana) izeneko ere ikusi ahal izan genuen Bergarako jaietan orain dela urte batzuk.

"Egoera errealak izan daitezkeenak, eguneroko bizitzan edozeini gerta dakizkiokenak, islatu nahi izaten ditugu. Umoreari eutsiz, pertsonaiak situazio limiteetan jartzen ditugu eta kaleko ikusleria antzezlanean murgilarazten saiatzen gara. Jendea espektakuloko parte da" diosku Miren Unzurrunzagak, Trapu Zaharrak taldeko kideak.

"Aberia" antzezlan orain dela bi urte estreinatu zen Lekeitioko Kale Antzer-



Hipolito Mantecaren papera Mikel Laskurain bergararrak egingo du.

ki Jaialdian. Harrez gero, 60 bat emanaldi eskaini dituzte Euskal Herrian, Estatuan eta Frantzia aldean.

Lanak ordu eta laurden inguru iraute du eta hiru dira bertan parte hartzen duten aktoreak: Loli Astore-

ka, Mikel Laskurain bergararra eta Xanti Ugalde. Lehen biek Maria Pilar eta Hipolito Manteca senar-emaztearen papera egiten dute eta azkenak, udaltzainarena. Domekan Bergaran eskainiko dutena Mikel Laskurainen

lehenengo emanaldia izango da. Normalean gazte-eraz antzeten dute, baina Bergaran euskaraz izango denez, Mikelek egingo du Hipolito Mantecarena.

Trapu Zaharra taldekoak, esan bezala, kaleko umorezko antzerkigintzan espezializatu dira. Toki askotan zehar ibili dira eta horrek, jendearen ohitura eta izaera gertutik ezagutzeko aukera eman die. Mirenek dioenez, "Andaluzak berehala sartzen dira obran. Esan daiteke, ia kalean bizi direla eta eurentzat kalea etxeko sukaldea bezala da. Euskaldunei eta katalanei, ordea, gehiago kostatzen zaie, erreserbatuagoak dira, baina oso umore onekoak dira hauek ere".

Ikuskizun honekin beste urtebete jarraituko dute, baina dagoeneko hurrengorako gaiak lantzen hasiak dira. Datorrena datorrela, domeka honetan Mantecatarren gora-beherekin barre egiteko eta euren arteko hika-miketetan muturra sartzeko aukera izango dugu. **B**

ERLOJUDENDA

Ondo pasau jaixetan!!

AINH



A

Boni Laskurain 2 ☎ 943 76 47 40

BITXITEGIA

Jabier Zabala, Lisker taldekoa

# "Rantxerekin hasi eta La Polla taldearekin amaitzen dugu"

•••••  
**San Martin plazan.**  
 Martitzenean  
 20:00etan eta  
 23:00etan.  
 •••••

Eibarko Lisker taldeak alaituko du martitzeneko dantzaldia San Martin plazan. Aurten 20 urte betetzen dira taldea sortu zela. Hasierako urteetan, rock sinfonikoaren, abanguardiakoaren edo rocka eta jazz nahasten zituzten taldeen ildotik murgiltzen baziren ere, dagoeneko 15 bat urte badaramate berbenetan.

Lisker taldeak disko bikoaina argitaratu zuen 1979. urtean Xoxoa argitaletxearen eskutik. 70eko hamarkada amaieran Errobik, Itoizek eta Koskak ere lan ederrak eman zituzte argitara.

Hasierako urte haien inguruan, eibartarrek Errobirekin batera Bergaran eskaini zuten kontzertua oso go-goan du Jabi Zabalak Lisker taldeko baxujoleak. Errobiren azken emanaldia izan zen eta Bergarako pilotalekua leporaino bete zen. "Ni soldaduzka egiten nengoen eta kontzertu hartan Pedro Bartrak (Ruper Ordorikaren lehen diskoan, "Hautsi da anphora" izenekoan aritu zena) jo zuen baxua. Sekulako emanaldia izan zen Bergarako hura. Ni ikusleriaren artean nengoen eta, benetan flipatu egin nuen Mixel Ducau, Jean Paul Guilles, Beñat Amorena eta Anje Duhalderen maisutasunarekin. Goi mailako musikariak ziren Errobikoak. Esan behar dut, "Ametsaren bidea" Errobiren azken dis-



Eibarko Lisker taldeak 20 urte betetzen ditu aurten.

koa, Bergaran aurkeztu zutena, gaur egun oraindik ere gustura entzuten dudala" diosku Jabier Zabalak.

Lisker taldearen diskoa kaleratu eta beste bost bat urte jarraitu zuten jazzaren eta rockaren ildotik. Halere, 80ko lehen zatian Rock Radical Vasco etiketaren inguruan La Polla Records, Zara-

ma, Hertzainak, Eskorbuto, eta abarrek euskal rocka astindu zutenean euren musikak gazteriarekin bat egiten ez zuela ohartu ziren eta dantzaldiei ekin zieten. Harez gero, plazarik plaza ari dira herrietako dantzaldiak alaitzen. Jaietako azken egunean, martitzenean, plazan izango ditugu.

Gaur egun, Julian Alberdik (kitarra), Jose Antonio Saladok (bateria), Jabi Zabalak (baxua), Ramon Escobarrek (kitarra eta ahotsa) eta Xabi Labaien bergararrak (teklatuak eta ahotsa) osatzen dute taldea. Lehen hirurak hasierako Lisker-ekoak dira.

Urtean 65-70 bat emanaldi eskaintzen dute. "Arabana eta Bizkaian aritzen gara gehienbat; Gipuzkoan gutxiago, Egan, Akelarre, Basakabi eta hauek hartuak baitituzte plaza gehienak" diosku Jabier Zabalak.

Dantzaldietatik bizi dira eta eurak bezalako taldeekin eta azkenaldian indarrean dauden trikitilarietara konpartitzen dute eszenatokia. Era guztietako musika eskaintzen dute, entzuleriaren gustuetara moldatu nahian: "kalejirekin, pasodobleekin, rantxerekin eta Backstreet Boys bezalako taldeen bertsioekin hasi eta Def Con Dos, Su Ta Gar edo La Pollaren abestiekin amaitzen dugu" esan digu Jabier Zabalak. **B**

**MUJIKA** **UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE** **FERRETERIA**

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!

**BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA**

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA



Ibargarai 11-13 BERGARA  
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



ondo pasau danok jaixetan!



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK



*Gazteendako, umeendako eta  
ume jaioberriendako  
altzariak eta dekorazioa*

## Tapizak, moketak, alfonbrak



*Kruz Gallastegi 3, Bergara.  
Tf. 943 76 07 37.*

UME-KOTXEAK  
eta UME-AULKIAK  
ere baditugu



**LAGUN**

**ARROZTEGIA**

Mekolalde 57. 20570 BERGARA  
☎ 943 76 08 10 (Tailerrekoa)  
☎ 943 77 02 43 (Etxekoa)


*Ateak*

*Leihoak*

*Sukaldeko armairuak*

*Horma armairuak*

*Era guztietako arotz lanak*



# Jaietako oroitzapenak

Denok izango ditugu jaietako oroitzapenak, politik eta ahaztekoak; barraketakoak, tonbolako txarlata-narenak, lehen dantza egin genuenekoak, txoznetakoak, lehen mozkorrarenak, sokamuturrakoak... Askotan ez da izaten erraza gogoratzea baina... Hainbat bergarrek, euren errekerdoak kontatu dizkigute.



Lola.

## LOLA ALTUNA

Pasakallian hasten giñuzen jaixak, Barrenkale eta Artekaletik. Sekulako girua egoten zan eta eguraldi ona eñ ezkerio, Espoloiraiño juaten giñan kalejiran. Akordatzen naiz Eibartik eta Arrasatetik mutillak etortzen ziela eta dantzan eitten giñuala eurekin; hala ta

be, goiz juaten giñan etxera, oingo aldian. Pazkuetarako soiñeko edo zapata berrixak estreiñatzen giñuzen: bata edo bestia, baina beti zeozer berrixa. Barraketan be ibiltzen giñan, goguan daukat errial bat kostatzen ziela. Plazan kasetak egoten zien eta aprobetxatzen giñuan gauza merkiak erosteko”.

## PATXI BERRAONDO

Gaztetako oroitzapenak gogoratze-rakuan estanpak etortzen jat burura. Era askotakuak egitten giñuzen, munduko aktualidadiai buruzkuak e.a. Bestalde, akordatzen naiz bi urtetan zela jaixak suspendidu ein zien. Juan XXIII.a Aitta Santua hil zala eta,

1967xan, Aiuntamentuak suspendidu zittuan. Dolu eguna izan zan eta jai ekitaldirik ez zan izan, baina frontoian pelota partiduak jokatu zien. Geroago, Gladys del Estal hil zebenian be, bertan behera geratu zien jaixak”.




Patxi.

## JOSE ANTONIO KORTABARRIA “MOZTU”

Lehen oroitzapena 12 bat urte nittua-lnekua da. Labegaraietako futbol zelaixan uso tiroketa txapelketia antolatzen zan eta ihes eindhako usuak topatzen ibiltzen giñan, ez gu, mutiko koskorak bakarrik, nausixauak be bai, eskopeta eta guzti, ihes eindhako usuei tiro eitten. Harrapatzen giñuzenak, etxera eruan eta kazuelara, jateko!

Estanpekin be akordatzen naiz: behin Kikio eta Txikixa bikixetako bat irten zien, hau harrijasotzaile jantzitta eta Kikio entrenadore. Kartoizko errek-tangularrarekin, Endañetaren errekorra, 250 kilokua, hautsi zeben. Beste errekerdo bat, zapatuan gaupasa eindhda gero, domeka eguerdixan gizurietako mikrofonua hartu eta karre-



Moztu.

## Mikel Uribesalgo

“Ez daukat memorixa onik baiña..., iaz ikasbidaiko txozna ipini giñuan eta goizian gerturatzen zien mozkorrak “que dios te lo pague” esanaz ordaintzen zoskuen errondia. Txoznia itxi ein bihar izan giñuan. Beste behiñ, zezenak harrapau nindduan, baiña orduan nik ez neban barreik eiñ, onduan zerenak baizik. Jaixetan argixak ipintzen ibiltzen zan elektrizistiai be sekulakuak eiñ jau. Argixa kendu...”.



Mikel.

# ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

**Berandu izan baino lehen zaindu zaitez!**

**Zure osasuna zaintzeko gaude.**

Kontzeziño 2 • ARRASATE • Tf.: 943 79 89 34

ristak entrebistatzen ibiltzen giñanekua da. 1984. urtian, Asentzio gaina lehen aldiz igo zeben eta Indurainek atara zeban karrera -orduan afizionaua zana eta haura be entrebistau giñuan. Lastima orduko fotografixaik ez eukitzia...”

**FELIX BEITIA**

Hainbeste gauza pasau jaku kosta egiten jatela oiñ errekuerdoren bat destakatzia. Ez gara atzo goizekuak eta... Baiña jaixetan gertatutako gauzarik onena gure seme zaharrena jaiotzia izan zan. 1983ko maiatzaren 24a zan, Pazkuetako martitzena, eta jai hartu neban egun horretan; goizian etxian bedarra batzen ibili nintzan eta eguerdixan andria eruan neban maternidadera, Eibarrrera. Umia laurak laurden gutxitan euki zeban eta emozionantia izan zan haura ikustia. Nahiko trankil egon nintzan egun horretan eta ospakizunak geroko laga genittuen”.



Felix.

Umia laurak laurden gutxitan euki zeban eta emozionantia izan zan haura ikustia. Nahiko trankil egon nintzan egun horretan eta ospakizunak geroko laga genittuen”.

**AMAIA TXINTXURRETA**

Taberna lotutako kontuak etortzen jat burura. Taberna Barrenkalian geunkanian, sokamuturra izaten zan bakoitzian jendiak tabernara sartzen zeban zezena. Goizean jende asko egoten zan bertan eta batzuk barra gainera salto eta beste batzuk sukalderaio sartzen zien. Batek baiño gehixagok berotu ederrak hartu zittuan sukaldeko txapan... Erresidentziako Teodoro be gaur baino ariñago zegoen eta salto ederrak egitten zittuan harek be...”



Amaia.

**PILI GURRUTXAGA**

Errekuerdo konkretuik ez daukat. Gehixau gogoratzen naiz oingo denborakin, gaztetako denborakin baiño. Dantza eittia asko gustatzen jat eta lehengo moduan, oiñ be dantzan ibil-

tzen ga. Lehen Espolioian eta oiñ, martitzenetan, kuadrillia-kin afaldu ostian Plazan. Gaur egun lehen baiño juergarako gogo gehixau eukitzen dot, gazte ezkondu nintzan eta... Gaiñera, jaixetan ez naiz kanpora juaten, zeozergatik organizatzen die ezta?”



Pili.

**Arrate Etxaniz**

“Goizaldian, jendia txoznetan biltzen da gaupasa ein da gero. Oin dala 3-4 urte, kanpotar batek Bideberittik Deba erre kara salto ein zeban igerixan eittera. Erropia kendu eta plast!... Hor dagon ur garbixakin, ze eta igerixan eittia okurridu. Gogorrena da salto eiñ baiño lehenau, zeukan kristalezko begixa kendu zebala badaezpada. Gainera, ez zeban behin eiñ. Usondo parketik bueltan etorri zanian berriz eiñ zeban salto. Barre nahikua eiñ giñuan, gaiñera ordu horretan...”



Arrate.

**MARIASUN GARDOKI**

Orduko denboretako hainbeste kontuz akordatzen da bat... Eskolara juan beharrian askotan piper be eiñ... Jaixak baiño lehen feriantiak etortzen zien barrakak montatzera eta orduan batek: “oye, trae un martillo”. Martillo ze zanik be askotan, erdaraz be ez genkixen eta. Juaten giñan, haura jirau eta eruan eta lagundu. Eta gero, barraketarako tikia jaso.

Beste gauza bat ederra neuretako izaten zan, maiatzian izaten zienian jaixak, maiatzeko lorak egoten zien eta Ospitaleko kapillara bertsotara juaten giñan, Ama birjiñari bertsuak bota eta holako gauzak. Aingeru jantzitxa neskatilak, komuniua egindakuak; eta danok hara. Maiatzeko jai danetan egiten zan eta Pazkuak tokatzen zienian pentsau zelako egun haundixa izaten zan. Eta Leon Salvador txarlatana Mujikane-ko ezkinan egoten zan, sastrerixa onduan, guardasol haundi bat zabaltzen zeban eta bere morroi-edo zeukanakin gauzak saltzen. Pasakallia be ederra izaten zan, kabezuduak bezperan... Oso ondo pasatzen giñuan”.



Mariasun.



**LASA**  
Jatetxea

Jai zorientsuak opa dizkizuegu

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 943 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29



# Zuekin batera festara goaz



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



MITSUBISHI  
MOTORS



Iñigo Almortza,  
Mitsubishi-Galoper  
zerbitzuko arduraduna

# Aldi bi

*Pentekoste jai zorientuak  
opa dizkizuegu  
bergarar guztioi!*



GALLOPER SANTAMO



MITSUBISHI CARISMA



GALLOPER EXCEED



MITSUBISHI GALANT



MITSUBISHI SPACE STAR

**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

ZIGARROLA 1 - TF: 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE



# Azkoagainen zoramena piztu daiteke zapatuan **Oñatin irabazi edo berdinduz gero, Bergara hirugarrenera!**

● ● ● ● ●  
**Azkoagain  
(Oñati).**  
Zapatuan  
16:30etan.

**Mutrikurekin izandako norgehiagokan guztia erabakita gelditzeko aukera bazegoen ere, zapatuarate itxaron beharko da BKEko talde nagusiaren etorkizuna jakin nahi badugu. Nietoren mutilen zorionerako, Aloñaren kontrako partidua zapatuarako iragarri da. Arratsaldeko 16:30etan jokatuko da Azkoagainen.**

Carlos Arnaiz, presidentearen hitzetan "azken partiduraino ez da ezer erabakiko. Aloña irabaztera behartuta dago eta alde batetik guretzat positiboa izan daiteke, urduritasuna ez baita ona. Bestalde, partiduak herriko jaietan harrapatu gaitu"

Txantxikuek guztia utziko dute zelaian Bergarakoei irabazi nahian. Bergarako partidu hau galduz gero, hurrengo partidua, Urolaren aurka duena, irabazi egin beharko du hirugarren mailara igo nahi badu. Talde biak aurrean ibili direla eta, garrantzia berezia hartu du norgehiagokak.

## JOKALARIAK IRRIKA BIZIAN

Alde batetik, Nietorenak zuzenean igotzea dute helburu, promozioa jokatu gabe eta, bestalde, Aloñakoei 3. mailan izateaz gain, Bergarari ahalik eta gol gehien egiteko asmotan zapalduko dute zelaia. Enrique Nieto entrenatzaileak dioenez "partidua irabaziz edota



Mutrikuren kontra bigarren zatian lortu zituzten bi golak bergararrek.

berdinduz gero 3. mailan gaude. Jokalariak partidu hori jokatzeko izugarrizko irrika dute. Aloña Bergararen menpe dago eta gu ez gaude inoren menpe. Ez da futbol politik ikusiko zapa-

tuko partiduan. 6 puntu daude jokoan eta guk 3 barririk behar ditugu. Hori bai, nahiz eta jaietan izan jendeari partidura hurbiltzea eskatuko nioke, bertan izango diren oñatiarren ani-

moei erantzuna eman behar zaie".


Enrique Nietok goizeko 10:30etarako entrenamendu berezia iragarri du. "Bakoi-tzak badaki zer egin behar duen. Lehenetasuna eman beharko dio eguakitzeo jurgari edo hirugarren mailan izateko aukerari. Jurgari ematen badiote argi dago 3. mailan izatea ez dugula merezi".

## BERGARA ENTRENATZEARI UTZIKO DIO NIETOK

Zuzendaritza Batzordeak entrenatzaile berria bilatu beharko du datorren denboraldirako. "Dagoeneko denbora luzea egin dut taldea entrenatzen eta taldea aldaketa beharrean dago. Batzordeari nire erabakia jakin arazi nionean, entrenadore berria Gorka Zelaia izateko proposamena ere luzatu nien. Hemendik aurrera, beraiek erabaki beharko dute baina Gorkak aukera bat merezi duela us-te dut. Lan handia egin du jubenilekin eta konfidantza piskat eman behar zaio". **B**





# Droga

dela eta arazoak dituen norbait  
ezagutzen baduzu  
dei iezaguzu!



# 91 855 03 86

# B E R G A R A




Luis Mari Azkargorta



Jabier Lazkano



Eukene Gracia




Mikel Zubimendi




Jose Migel Gaztelu




Xabier Oregi




Luis Etxeberria




Mikel Askasibar



Jose Mari Etxaniz



Iñaki Arietaleaniz



Jose Luis Elgoro

**JAIK BAI EUSKAL PRESOK ETA ERREFUXIATUAK  
EUSKAL HERRIRA ERE BAI**



**Bergarako Euskal Presok Euskal Herrira taldea**

# Txomin Castrori omenaldia Tronpetajole nekaezina

**Espoloian.**  
astelehenean  
12:30etan.

**Astelehen eguerdian Udal Musika Bandak Espoloian emango duen kontzertuan Txomin Castro Los Incansables txarangako tronpetajole ohiari omenaldia eskainiko zaio. Castro hogeita hamar bat urtetan etorri izan da Bergarako Pazkuak animatzera.**

**T**xomin Castro "Dominguin" 16 urte zituela etorri zen aurreneko aldiz Bergarako jaietara Los Pomposhos izeneko bandarekin, orain dela 30 urte inguru. Miguel Miralles "Gilito" zen taldeko zuzendaria. "Gilito" k 150 kg. inguru pisatzen zuen eta, zapatak lotzerik ez zuenez, Txomini agintzen zion lan hori kordak askatzen zitzaizkion bakoitzean. Los Pomposhos taldea 50-60 lagunez osatuta zegoen eta arrakasta handiko taldea izan zen. Autobus propioa zeukaten eta Estatu osoko herrietatik deitzen zieten jaiak animatzera joateko. Umorea jorratuz, parodia bikainak eskaintzen zituzten.

Los Pomposhos taldean jardun ondoren, Los Incansables-en hasi zen "Dominguin" duela 27 urte. Tolosako ihauterien inguruan sortu zen taldea. Txarangaren garairik onenean beraiek eta Egan taldea ziren jai guztietako erreferente nagusiak. Bergaran ere urte askotan izan ditugu bisitari. Lehen aldiz Miguel Angel Larrañagaren jestioari esker



Txomin Castro 1991ko Pazkuetan, Udaletxeko balkoian.

POL-POL ARGAZKI TALDEA

etorri ziren eta ordutik jaietako fijoak izan ditugu. Duela urte batzuk astelehenean eta martitzenean egoten ziren gure artean eta juergan ere nekaezinak direla erakutsi dute. Ariznoa hotelean hartzen zuten ostatu eta juerga luze baten ondorioz ohizkoa zen norbai-

tek "Larra" ren bonboaren falta somatzea goizean. Hala ere, beharrezko jestioak egin ondoren, kalejiran irtezen ziren instrumentu denekin.

Txominek Gabonetan utzi zion taldean jotzeari eta hori dela eta Bergarako "Musikazaleak" taldeak omenaldia gertatu dio astelehenerako. Txominentzat gertatutako sorpresa bat izango da. Kontzertuaren amaieran Bandak "Leizako herriari" izeneko pieza joko du bere omenez. Aipatutako pieza Joaquin Ortega Los Incansableseko saxofonistarena da eta duela bi urte Leitzako Udalak taldearen zilarrezko ezteietan egindako omenaldian estreinatu zen. Txominek hainbat opari jasoko ditu eta kontzertuaren ostean lagunarteko bazkaria izango da. **B**

Aprobetxatu oporrak  
GIDA BAIMENA  
ateratzeko

**LARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Izena ematean  
**%10EKO BEHERAPENA**  
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

ZAPATUA 22  
Afaria zuzeneko  
musikarekin

*Tartufo Jabetxea*

MARTITZENA 25  
Bazkaria koadrilendako  
zuzeneko musikarekin

JAIK GOZOTASUNEAN PASATZEKO

Gorde ezazu lekua!

**BERGARAKO UNEDen  
UDAKO  
IKASTARO INTENTSIBOAK**

**INGELES  
FRANTSESA  
ALEMANA**

**M A T R I K U L A   Z A B A L I K !**

**Ekainaren 24tik uztailaren 14ra.**

- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.
- ADIN GUZTIAK:  
HAUR, GAZTE ETA HELDU
- EGUNERO 3 EDO 4 ORDU.

**INFORMAZIOA:**  
Bergarako UNED.  
San Martin plaza z/g (3. pisua)  
☎ 943 76 06 87



# uda kanpaina 1999

1. TXANDA ekainaren 21etik uztailaren 2ra
2. TXANDA uztailaren 5etik 16ra
3. TXANDA uztailaren 19tik 30era

## KIROLAK

Haur igeriketa  
Igeriketa  
Waterpolo  
Piraguismoa  
Aerobic saltsa  
Aerobic step

Jazz dantza  
Tenisa  
Golfa  
Pilota jolasak  
Beisbola  
Eskalada

Multikirola  
Mantenimendu gimnasia  
Street hockey  
Saltsa-Merenge  
Raftinga, Kanioiak  
Eta abar...

**IZENA EMATEKO EPEA EKAINAREN 1ean IREKIKO DA**

*Anima zaitetz eta izena eman lehenbailehen Udaleko Kirol Zerbitzuan,  
goizeko 7:30etatik arratsaldeko 13:30etara.  
Tf. 943 77 91 67*

Antolatzaileak: Bergarako Udala eta Kirol Zerbitzua



Bergarako  
Udala



Kirol Zerbitzua

# Aukeria euki ezkerro, ze ekarriko ziñuke Pazkuetara?

Egitarau ofizialetik aparte, jende askoi beste gauza batzuk egotia gustauko litzakio. Datorren urterako ideak emote aldera, bergarar batzuei oiñ ez dagon ze aukera eukitzia gustauko litzakien galdetu dotseu.



**Rafael Vallejo**

Jaiak gazteentzat dira. Entzierroak dira ikusten ditudan bakarrak. Neska politekin egindako ekitaldiren bat ez litzateke gaizki egongo. Dantzaren bat edo...



**Joseba Goigana**

Ekartzen dabenakin konformatzen naiz. Ahalegiñak egitten dittue gauzak ekartzeko eta. Euskal gruporen bat ekartzia gustauko litzateke: bertsolariak...



**Aritz Alustiza**

Barraka gehixao, hobiak eta preziaua bajuaua. Lagunak han egoten ga. Gabetan, plazan be izaten ga dantzan baiña normalian barraketan ibiltzen ga.



**Covadonga Diez**

Lehen egunetan kanpora jotaten gara. Dena dela, egitaraua nahiko ondo dago. Eskatzekotan Antonio Banderas edo Ricky Martin ekartzia gustatuko litzaidake.



**Loli Gimbert**

Musika ekitaldi berezi bat. Manolo Garcia ikustea izugarria litzateke baina aurrekontu handia dauka. Gazteentzat kontzertu polit bat egon beharko litzateke.



**Idoia Murgiondo**

Ez daukat gusto konkretuik baina fama puskat daukan antzerki bat ikustia gustauko litzateke. Ez dot egitten gauza handirik, umiekin barraketan ibili besteik ez.



**Lisbert Iñarra**

Ez dakit. Jaixetatik gehixen gustatzen jatena kalia egoten dan girua da. Dana dala, euskal musikia gustatzen jat. Alaitz eta Maider, Maixa eta Ixiar, Negu Gorriak...



**Fernando Zuazo**

Ez jat jaixak bape gustatzen. Paso eitten dot. Eskatzekotan, Van Morrison ikustia ez litzateke gaizki egongo. Dana dala, egun normal baten ikustia nahixao dot.

## ELKAR fotokopiak

Arruriaga 1, behea. Tf. eta faxa 943 76 58 16.

**Fotokopiak**  
Plastifikazioak DIN A4 eta DIN A3  
**Fax zerbitzua**  
Enkuadernazioak  
**Eskolarako materiala**

Planoen kopiak  
**Kautxozko zigiluak**  
Faszikuluen enkuadernazioa  
**Eta KOLORETAKO**  
**FOTOKOPIAK LASERREAN !**



## KANTARIAK ESPOLOIAN, 1950ko PAZKUAK

**B**ergarako Orfeoia sortu zeneko 75. urteurrena ospatzen ari dira Orfeoiko kideak eta beste ekitaldi batzuen artean, erakusketa ireki dute jaietan Udaletxean. Bertan ikus daitekeen argazkietako bat, honako hau duzue.

Erretratua 1950ko maiatzaren 27an Espoloian ateratakoa da. Bergarako jaiak ziren eta Bergarako Orfeoiak emanaldia eskaini zuen Udal Pilotalekuan Donostiako Kontserbatorioko Orkestrarekin batera. Esan behar da Donostiako Orfeoiko emakumezko batzuk etorri zirela Bergarako Orfeoiari laguntzera eta horietako batzuk ageri dira argazkian, hauen izenak ez dakizkigun arren.

Argazkian, Bergarako eta Donostiako orfeoietako kide batzuk ikus ditzakezue, emanaldi ostean, Espoloian trago batzuk hartzen. Arratsaldean, koadrila zekorketa ikustera joan zen. Erretratuan agertzen diren guztien izena ez dakigu, baina hona hemen batzuen izenak, ezkerretik hasita:

Donato Gallastegi, Ramon Usandizaga (Donostiako Kontserbatorioko Orkestrako zuzendaria), Antonio Peña, Don Roman Oizartabal (Bergarako Orfeoiko zuzendaria), Juan Gorostidi (Donostiako Orfeoiko zuzendaria, atzetik) eta Migel Gallastegi (eibartarra, askorentzat sekula izan den pilotaririk onena). Eskumako ertzean ageri dena, ez dakigu nor den.

*Argazkia: Ana Irigoien. Bergarako Udal Agiritegiko bildumakoa.*



**umelaga**  
JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

*EGUNERO ZABALIK!*

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ! Jai zoriontsuak!**

# TELAETXE S.A.

OIHALAK eta OIHAL PUSKAK

Zetak, toailak, izarak, eta abar.



**ORDUTEGIA**  
Astelehenetik  
zapatura:  
**10:00-13:00**  
eta **16:00-20:00**

Elgetako bidea  
(gasolindegitik 300  
metrora, "Cotones  
Agirrezabal"en ondoan)  
Telefonoak:  
943 76 39 40 / 39 41  
Faxa: 943 76 56 38  
BERGARA

► Sukalderako eta  
saloirako kortinak  
neurria egiten ditugu.



► Etxea  
apaintzeko  
era  
guztietako  
ehun-  
gaiak,  
estoreak...

► Era guztietako tapizak.

► Somierrak (artikulatuak eta  
elektrikoak ere bai), nordikoak  
eta LATEXeko KOLTXOIAK  
preziorik onenean!



**Ondo pasau Bergarako jaixak!**



**MIZPILDI**




**OKINDEGIA**

**Eta kafe  
dastaketa!**

**Mizpildi 8**  
943 76 12 32

**Ondo pasa ditzazuela  
Pentekoste jaiak!**

**Matxiategi 1**  
943 76 72 73



**Zuretzat,  
bidalketa sistema  
fidagarri bat edukitzea  
ez da aukerarik garrantzitsuena.**

## Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT  
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,  
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ  
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN  
MERKATURATZEA NAHI DUZU.  
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK  
BETE BEHAR DITUZU,  
ALDI BEREAN HAUEK ERE  
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.  
BIDALKETA,  
ZEURE NAHIAREN ARABERA  
EGITEA ESKATZEN DUZU,  
BESTERIK EZ.  
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI  
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,  
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK  
GARAIZ BETE DITZAZUN.  
HORRELAKO XEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEAK  
ATEZ ATE BANATZEN,  
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA  
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,  
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



**GUIPUZCOANA**  
*Paketeen Garraio eta Banaketa*



*Beti garaiz.*